



ANBOTOK FORMATU BERRIA ESTREINATU DU

ANBOTOK aro berri bat hasi du. Hedabidearen historian lehenengoz, formatu aldaketa egitea erabaki du paperezko edizioa indartzeko. Hauxe da eredu berriaren lehenengo alea / 2-3

Mallabiko, Berrizko eta Garaiko udalek errekurtsioa ipini diote goi tentsioko linea berriari / 11



32 ume sahararrek Durangaldean igaroko dute uda, Oporrak Bakean programaren bitartez / 12

Garaiko Astotrail lasterketak ibilbide laburrago bat ere izango du aukeran aurtengo aldian / 26

Hamabost proposamen lurreta eta Durango arteko pasabide berria izendatzeko / 5



OTXANDIOKO SANTAMAÑA JAIK 2024 / 13



ZORNOTZAKO SANTANATXU ETA KARMEN JAIK 2024 / 14

HOME SCHMIDT HOME



UZTAILAREN 1etik 31ra

UDAKO BEHERAPENAK

ZURE SUKALDEA **7.800€** -tik
dena barne* aurrera

Abeldiño

ANBOTO aro berri batean

22 urteko ibilbidean, Durangaldeko hedabideak formatu aldaketa egiten duen lehenengo aldia da. Diseinu aldaketak paperezko edizioa aberastuko du

Joseba Derteano DURANGALDEA

Hedabideen mundua etenbako aldaketa fase bat bizitzen dabil. Digitalizazioak eta sare sozialek guztiz aldatu dute komunikazioaren paradigma. Mugikorretan geroago eta informazio gehiago kontsumitzen da. Inoiz baino informazio gehiago zabalitzen ari den momentua bizitzen gabilta. Baina, era berean, desinformazioa geroago eta handiagoa da. Ekosistema berri honetan, paperezko edizioek egoera honetara moldatu behar izan dute eta ANBOTO ere ez da salbuespena izan. Hartara, gaur kaleraturiko edizioa behar izan berriei erantzutera dator. Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak dioenez, edizio berri hau "aldizkariagoa" da.

Harpidedunek aldaketa handia igarriko dute gaur postontzira doazenean.

Bai, formatu aldaketa ez da us-

tekabeen pasatuko. Paperezko edizioa "aldizkariagoa" dela ikusiko dute. Era berean, diseinu eta pieza aldetik aberatsagoa ere bada. Aurrerapauso handia suposatzen du erredakzioan.

"APUSTU HONEGAZ, PAPERZKO EDIZIOA BERRITU ETA INDARTU GURA IZAN DUGU"

Zergaitik erabaki duzue horrelako aldaketa bat egitea?

Apustu honegaz, paperezko edizioa berritu eta indartu gura izan dugu. Mugikorrek eta sare sozialek informazioa kontsumitzeko modua aldatu dute. Joko arau berri horietan, paperezko edizioak birkokatu egin behar dira. Gure kasuan ere, *anboto.org* webgunean informazioa uneoro zabaltzen dugu, eta astean

behin kaleratzen dugun paperezko edizioak beste eskaintza bat egin beharra dauka. Aktualitateagaz lotuta egon behar da, baina baita sakontasunagaz ere. Tokiko euskarazko hedabideok, generalistekin alderatuta, paperrari eusten gabilta oraingoz. Baina eskaintzen ditugun produktuek erakargarriak izan behar dute. Testuinguru horretan egin dugu formatua aldatzearen aldeko hautua.

Zergaitik formatu hau?

Goiena aldizkariaren formatua gogoko genuen, aldizkari itxura hori gustatzen zitzaigun, ertzak margenetara doituta. Eurekin hartu-eman estua dugu Tokikomen bitartez (euskarazko tokiko hedabideen bateragunea), eta prozesu honetan laguntzeko eskatu genien. Laguntasun handia eman digute. Gainera, edizio sistema bera erabiltzen dugunez, teknikoki erraztasunak izan ditugu.



Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendaria. AINHOA IRAOLA.



ANBOTOren 1.000. alea azaroan kaleratuko da

23 urtean egindako ibilbidean zenbaki borobilerara helduko da: milagarrenera

Joseba Derteano DURANGALDEA

Zenbaki borobilek badute euren simbologia eta balioa. Kasu honetan, ANBOTO zenbaki potolo batera helduko da: milagarren alera. 2001eko azaroaren 9an bere lehenengo alea kaleratu zuenetik, astero bere publikazioa postontzietara helaraziz, mugarririk horretara heldu da txiri-txiri.

Baina horrelako lorpen bat ez da besterik barik gertatzen. ANBOTO puntu honetara heldu bada, hainbat pertsonari eskerrak izan da. Zelan ez, proiektuaren sortzaileek izan zuten prestutasuna ezinbestekoa izan zen hedabidea martxan ipintzeko. Eskualdeko euskara elkarteek bultzada eman zioten proiektuak bazuen aurrekaria: Eraz aldiz-

karia. Debagoienako Goiena komunikazio taldearen proiektua begiz jota zuten eta egunkari formaturako jauzia egin zuten. Harrezkero diseinua aldatu den arren, formatua ez.

Euskara elkarteek sustaturiko ekimena hazten joan da urte hauetan guztietan. Webgunea sortu zen, eta gero sare sozialak ere etorri dira.

Ale berezia

1.000. alea gogora ekartzeko, ANBOTOk ale berezia kaleratuko du azaroan. Ibilbide honetan komunikazio proiektuak aurrera egingeko euren ekarpena egin dutenak izango dira protagonista: irakurleak, iragarleak, kolaboratzaileak, instituzioak, lantaldea, langile ohiak eta beste hainbat eta hainbat lagun.



ANBOTOren aleak.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

30€
urtean!

anboto
kide



Beñat Goikoetxea, Jon Batiz eta Iratxe Lejarreta Bremengo unibertsitateko Vivian Harberts-egaz. MARISTAK DURANGO

Kenyako landa eremuko hezkuntzan eragin guran

Maristak Durangoko irakasle Beñat Goikoetxeak eta Jon Batizek Kenyako (Afrika) landa eremuetan hezkuntza eraldatzea helburu duen nazioarteko proiektu batean parte hartuko dute. Proiektuan lan egiten duen Iratxe Lejarretari lagunduko diote

J.D. / A.B. DURANGO

Maristak Durango ikastetxeko Beñat Goikoetxea eta Jon Batiz irakasleek Kenyako (Afrika) landa eremuetan hezkuntza eraldatzea helburu duen ekimen aitzindari batean parte hartuko dute, Bremengo Unibertsitateagaz (Alemania) elkarlanean. Hainbat urtean Erasmus+ nazioarteko proiektu horretan lanean dabilen Iratxe Lejarreta irakasleari lagunduko diotela azaldu dute. Bestalde, ikastetxeko beste irakasle batzuekin batera, Sistema Elektronikoen eta Automatizazioaren goi mailako zikloa ipiniko dutela martxan iragarri dute.

Kenyako mendebaldeko Homa Bay konderrian "eragin positibo esanguratsua" sortzea da proiektuaren helburua. "Hezkuntzaren kalitatea, eta, horregaz batera, bizi kalitatea hobetzea espero dugu; enplegua sortuz, hezkuntzarako sarbidea handituz eta tokiko azpiegitura indartzuz. Lankidetzara oso garrantzitsua da

horrelako proiektuek luzera begira arrakasta izan dezaten, eta, kasu honetan, lider komunitarioen laguntasuna dugu horrelako ekimenek tokiko biztanleen benetako beharrezan asetzen dituztela bermatzeko", azaldu dute.

Erronka "garrantzitsua"

Ikastetxeko arduradunek esan dute erronka "garrantzitsuei" aurre egin beharko dietela. Batez ere, landa eremuetarako sarbideari eta logistikari dagokienez, teknologia klimaren eta ingurumenaren beste baldintza batzuetara egokitzeko premiari

HEZKUNTZAREN KALITATEA HOBETZEA ESPERO DUTE, ETA, HORREGAZ BATERA, BIZI KALITATEA

dagokionez, eta iraunkortasuna epe luzera ziurtatzearen garrantziari dagokionez. "Irakasleen prestakuntza funtsezkoa da sistema mantentzeko eta ulermen tekniko bermatzeko, eta proiektuan parte hartzeak trebetasun praktikoak eta ingurumen kontzientzia sustatuko ditu. Oztopoak oztopo, proiektu hau oso aukera ona da Kenyan hezkuntza, autonomia eta garapen iraunkorra sustatzeko", esan dute. "Kenyako tokiko komunitateek eguzki plaken instalazioen iraunkortasuna eta epe luzeko mantentzea bermatzeko, garrantzitsua da prestakuntza egokia eta mantentze-plan komunitario bat ezartzea, tokiko euskarri tekniko garatzeko", gaineratu dute.

Maristak Durangoko irakasleak Bremenera ere joan dira, HETELen mugikortasun beka bat gaz. Alemaniako Lanbide Heziketaren sistema ezagutzeko eta ikastetxeko sistemari aplikatu dakizkiokeen ideiak hartzeko aukera izan dute han.

Kirol ekipamendua berriztu dute Durangoko Adineko Zentroan

Durangoko Udalak 10 bizikleta estatiko erosi ditu, eta gorputzaren goaldea indartzeko trainer funtzional bat

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak jarduera fisikoa egiteko ekipamendua berriztu du Astarloa kaleko Adinekoen Zentroan. Hamar bizikleta estatiko erosi dituzte (euretariko bi eserleku bereziagaz), eta gorputzaren goaldea lantzeko trainer funtzional bat. Adinekoak ekipamendu berria erabiltzera eta zentroan programatzen diren kirol jardueretan

parte hartzera gonbidatu dituzte. Guztira, 14.500 euro inbertitu dituzte.

Adinekoen Zentroko altzariak hobetuko dituzte laster, aretoen funtzionaltasuna hobetzeko eta programatzen diren jarduerak modu egokiagoan lantzeko. Durangoko gobernu taldeak zaharitze aktiboaren eta bizimodu osasungarriaren aldeko apustua berretsi du.



Udaleko eta Adineko Zentroko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

Sanfaustoetako kartel lehiaketa

Altziber basauri DURANGO

Udalak sanfaustoak iragartzeko kartel lehiaketa ipini du martxan. Abuztuaren 30era arte bidali daitezke lanak, eta irabazleak 900 euroko saria lortuko du. Jai Kontseiluko kideek eta adituek osaturiko epaimahai batek zazpi finalistak aukeratu ditu, irailaren 2an. Herriarrek finalista horien artean bozkatu beharko dute.



Zinema aire zabalean eskainiko dute Durangon

Altziber Basauri DURANGO

Durangoko Udalak, Zugaza Zinemagaz elkarlanean, aire zabaleko zine emanaldi bi egingo ditu. Doako proiektzioak izango dira biak, eta 22:00etan hasiko dira.

Uztailaren 27an *Vaya vacaciones* filma emango dute Tabira auzoan. Eta abuztuaren 30ean *Dragonkeeper* filma ikusteko

aukera egongo da Otamotzena parkean. "Durangon geratzen diren herritarrek eta bisitariek entretenimendu aukerarik zabalena izatea gura dugu", adierazi du Jessica Ruiz Durangoko alkateordeak. "Uda dinamizatu, auzoei bizi eman eta haur zein helduentzat programazioa eskaintzea dugu helburu", gaineratu du Ruizek.

Eguraldi txarra eginez gero, zine emanaldiak Andra Mariko elizpean egingo dira, udal arduradunek esan dutenez.



Cafés Baqueko marketin zuzendari Iñigo Gutierrez eta Jessica Ruiz alkateordea.

Lankidetzaz berritu dute Baque Fundazioagaz Durangon

Udalak 30.000 euroko diru laguntza emango dio Baque Fundazioari; formakuntza sustatuko dute, lehenengoz

Aitziber Basauri DURANGO

Durangoko Udalak eta Baque Fundazioak lankidetzaz hitzarmena berritu dute, herrian kirol jarduerak sustatzeko eta kultura eta gizarte jarduerak babesteko helburuagaz. Hartara, Baquek 30.000 euroko diru laguntza jasoko du udaletik, eta diru hori erakunde bien artean zehazturiko helburuak betetzen dituzten kirol klubei eta kultura, gizarte ekintza eta formakuntza elkartei laguntzeko erabiliko da.

Baque Fundazioak ekarpen ekonomikoak osatuko ditu, %20 ko gehigarriagaz. Era berean,

elkarte berri bira diruz lagunduko die urtero; beti ere, udalagaz adostuta.

Formakuntza

Bestalde, Baque Fundazioak formakuntza sustatuko du lehenengoz, Kafe Eskolaren bitartez. Doako lanbide prestakuntzak eskainiko dituzte Dendak Bai elkartearen bitartez, eta, Lanbide Heziketako Eskolagaz lankidetzan, barista ikastaroak emango dituzte (Oinarritzko SCA Ziurtagiria barne). Fundazioak kirol erakundeei laguntzen jarraituko du, jaso dutenez.

Durangoko Landako Gunean eguzki plakak ipiniko dituzte

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak Landako Gunean eguzki plakak ipintzeko lizitazio prozesua hasi du, 420.940 euroko aurrekontuagaz, prentsa oharrean azaldu dutenez. Eraikinen eraginkortasun energetikoa eta jasagarritasuna handitzea da helburua, energia garbia sortuz, karbono aztarna murriztuz eta azpiegitura hobetuz. Eraikinen teiltuan autokontsumo partekaturako eguzki energia fotovoltaiakoko sistema bi ipiniko dituzte, eta estalkian asfaltozko oihala, eraikina babesteko eta inpermeabilizazioa hobetzeko. Udalak 190.771 euroko laguntza izan du Energiaren Euskal Erakundetik.

Konponketak egingo dituzte Durangoko haurreskolan

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak Julene Azpeitia haurreskolako bulegoko ateak eta zorua aldatu gura ditu, eta horretarako lizitazio prozesua hasi du. Umeentzat eta hezitzaileentzat "ingurune segurua eta funtzionalagoa" sortzea da helburua, udal ordezkariek azaldu dutenez. Gaur egungo segurtasun eta irisgarritasun estandarrak betetzen dituzten ateak ipiniko dituzte, "egunero erabilera intentsua jasateko diseinatuak". Zorua ere guztiz berriztuko dute, espazio "segurua" eta "garbia" bermatzeko. Lanak uztailaren 22an hasiko dira eta bi-hiru aste iraungo dute. Udalak 17.515 euro inbertituko ditu.

Izen bat herri bi lotzen dituen zubi berriari

Durango eta Iurreta lotzen dituen zubi berriari izena ipintzeko parte hartze prozesua zabaldu zuten udal biek ekainean. Herritarren proposamenak batu ondoren, 15 izenagaz osaturiko zerrenda osatu dute irailean egingo den bozketa faserako

A.B. DURANGO-IURRETA

Garai batean, Atxixueta izenagaz ezagutzen zuten. Gerora, Deabruaren Zubia izena hartu zuen. Baina oraindino erabakitzeko dago aurrerantzean zein izen hartuko duen. Durango eta Iurreta lotzen dituen zubi berriaren izena herritarren esku utzi dute udal biek. Bada, horretarako parte hartze prozesua zabaldu zuten joan zen ekainean, eta batu dituzte proposamen guztiak; 15, hain zuzen ere. Altzairu moztuz eraikitako 45 metroko zubiaren behin betiko izena irailean aukeratu dute.

Irailaren 9tik 15era bitartean egingo dute bozketa fasea. Orduan izango dute herritarrek gustuko den izenaren aldeko botoa emateko aukera. Ondoren, boto kopuruaren arabera ordenaturiko zerrenda osoa jakinaraziko dute udal ardura-dunek. Botorik gehien batzen duena izango da zubiaren behin betiko izena.



Zubi berria. AINHOA IRAOLA

Mugikortasuna "hobetzeko"

Iurretako bidegorria Durango-Landako bidegorriagaz lotzen duen zubi herri bien arteko mugikortasuna "hobetzeko" helburuagaz eraiki zuten. Joan zen legegintzaldian zubi zaharra

kendu behar izan zuten, ibaiaren gorabeherek Arripausuetako etxebizitza batzuetan eragina izan zezakeelako.

BEHIN BETIKO 15 PROPOSAMENAK

- Atxixueta zubi.
- Arripausuetako zubi berria.
- Batasunaren zubi berria.
- Bihurri berri.
- Deabruaren zubi.
- Elkartasunaren zubi.
- Errekagane zubi.
- Herri bi arteko zubi.
- Ibaizabal zehar.
- Inpernuzubi.
- Sapuzubi.
- Suhiltzaileen zubi.
- Urkullu Lehendakaria zubi.
- Zubiberri.
- Zubigorri.

Ludi Rueda eta Juan Antonio Garcia iurretarek irabazi dituzte 250 euroko bidaia txartel biak

Udalak eta Dendak Bai elkarteak martxan ipinitako 'Erosi Iurretan eta prestatu uda gozatzeko!' kanpainaren barruan zozkatu dituzte, bidaia agentzia batean trukagarriak

Aitziber Basauri IURRETA

Udalak, Durangaldeko merkataria eta ostalarien Dendak Bai elkarteagaz batera, *Erosi Iurretan eta prestatu uda gozatzeko!* kanpaina ipini zuen martxan ekainean. Herrian erostera eta kontsumitzera bultzatzeko, hondartzarako toalla bat oparitu dute 50 euroko erosketa bakoitzagaitik. Bidaia agentzia batean trukagarriak diren 250 euroko bidaia txartel bi ere zozkatu dituzte, eta Ludi Rueda eta Juan Antonio Garcia izan dira zori oneneko irabazle biak.



Oskar Koka alkatea (erdian) irabazle biek. IURRETAKO UDALA

Plaza eraberritu, izaera polifazetikoari eutsita

Izurtzako plaza eraberritzeko egitasmoa aurrera doa apurka. Lehenengo pausoa, udalak batzar zabalak egin ditu herritarren iritzia eta beharrianak jasotzeko. Batzar horien ondoren, exekuzio proiektua idaztea izango da hurrengo pausoa

Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzako Udalaren ibilbide orria aurrera doa apurka-apurka, plaza eraberritu eta berrantolatzeke. Udalak gaur egungo beharrianetara egokitu gura du. Egitasmo horren barruko lehenengo urratsa batzar zabalak egitea izan da, egitasmoa herritarrei aurkeztu eta euren ideiak jasotzeko.

Lehenengo batzarra apirilean izan zen, erabilera anitzeko erakinean. Orduan entzun eta jasotzeko aintzat hartuta, aurre-proiektu bat landu eta beste herri batzar batean aurkeztu zuten, ekain amaieran. Herritarren *feedback* berria jasotzeko



Etorkizuneko plaza eraberrituak umeen parke bat izango du, gaur egungoak legez.

eta egitasmoa fintzen jarraitzeke baliatu zuten herri batzarra.

Izaera polifazetiko

Filosofia orokor modura, plazak orain duen "izaera polifazetiko" mantentzea eskatu dute izurtzarrek, Oihane Irastorza alkatearen esanetan. Hau da, egoki ikusten dute bestelako osagaiekin batera ekimen desberdinak hartzeko balioko duen espazio lau bati eustea. Esaterako, jaietako dantza saioa hartzeko. Oraintsu izan den Izurtzako Aste Kulturaren barruko antzerki saioa ere plazan egin dute.

Bestelako osagaiak

Plazako beste eremu batean estalpe bat egiteko asmoa dago, eta plaza eraberrituak umeen parkea ere izango du, gaur egungoak legez. Horrez gainera, plaza naturalizatzea da beste helburuetariko bat, zuhaitzak eta berdeguneak izango dituen. Azkenik, plazako sarrera-irteerak hobetuko dituzte.

Plaza eraberritzeko egitasmoaren barruko hurrengo pausoa exekuzio proiektua idaztea izango da.



Itxituren irudi bat. OTXANDIOKO UDALA

Otxandioko larredietan hobekuntzak egin dituzte

A.B. OTXANDIO

Otxandioko larredi publikoetan hobekuntza lanak egin dituzte azken urteetan, udalaren eta herriko abeltzainen elkarlanari eskerrak. Orain, Presazelaiko eta Iñola inguruko larredietan txarto zeuden itxiturak berriztu dituzte. Datorren udazkenean Presazelaiko larrediak eta Mendikurku ingurua garbitzea aurreikusitakoak dira.

Udalaren marka berriak herriko nortasuna du

Mallabiko Udalak irudi korporatibo berria aukeratu du, gaur egungo garaiei egokituta dagoen bat. Prozesu parte hartzaile batean herritarren botorik gehien jaso duen marka hobetsi dute, herriko sustraiak eta nortasuna azpimarratzen dituen

J.D. MALLABIA

Eskualdeko beste udal batzuen bideari jarraituta, Mallabiko Udalak bere irudi korporatiboa eguneratu du.

Proiektu honetan herritarrek inplikatzeko helburuagaz, parte hartze prozesu bat hasi zuten ekainean. "Argi genuen marka berria herritarrekin batera aukeratu gura genuela", azaldu du Igor Agirre alkateak. Lau logotipo zeuden aukeran, eta bakoi-tzari buruzko xehetasunak jasotzen zituen liburuxka bat banatu zuten herriko postontzietan. Ondoren, herritarrek markarik gustukoena bozkatzeke aukera izan zuten, kultur



Irudi korporatibo berria.

etxean eta udaletxean ipinitako postontzietan.

Prozesu horretan 38 herritarrek bozkatu zuten. Gehiengo zabal batek, 25 botogaz, 'Sustraiak eta

norberaren nortasuna' izeneko bozkatu zuen, eta udalak herritarren aukera hori hobetsi du. Markaren izenburuak aditzera ematen duen moduan, irudi instituzional berriak herriko historia, tradizioak eta balio kulturalak batzen ditu. Irudian, herriko banderaren koloreak eta forma nagusitzen dira, eta 'M' hizkiaren itxurak mendiei egiten die erreferentzia.

Gainerako hiru aukerak 13 boto jaso dituzte: 'Dotorezia, kultura eta modernismoa' izenekoak zortzi boto, 'Dinamismoa eta bizitasuna' izenekoak bost eta 'Sinpletasuna eta eraginkortasuna' izenekoak bat ere ez.



Bea Larrañaga, kaleko ikuskizun batean.

Kale ikuskizuna gozagai, Apatan

Eguenean 'Bonba bat naiz' antzezlanaren plazaratuko dute

J.D. ATXONDO

Uztailaren 18ko egunean, 20:00etan, Atxondoko Kultura Mahaitik irtendako ekimen berri batez gozatzeko aukera egongo da Atxondon. Kasu honetan, clown ikuskizun bat ekarriko dute Apatako plazara, umeak zein nagusiak entretenitzeko: Intujai Teatro konpainiaren 'Bonba bat naiz' antzezlanaren. Ikuskizunak clowna, musika, koreografiak eta bestelako osagaiak batzen ditu. Bea Larrañaga aktorea Goxoa Etxezarreta gozogilearen paperean sartuko da oraingoan, eta bere Ttukun gozotegiagaz eta zoriontasunaren errezetaz bisitatuko du Apata. Gustuko duen Chantilly Bonba pastelaren sekretuak kontatuko ditu.



Durangaldeko argazki irakaslea 2023

UDA KO 10. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak webgunera edo bidali 688635041 zenbakira irailaren 15era arte



Durangaldetik kanpoko argazki irakaslea 2023

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

Info* www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
informazioa & informazioak


ERRIGORA



Garai
Landetxea

80 ekitalditik gora Ferixa Nausikoetako egitarauan

Elorrio Futbol Taldeak jaurtiko du txupina, abuztuaren 31n. Nogen, Unidad Alavesa, Korrontzi eta Aukeran dantza taldea izango dira jaietan, besteak beste. Tradizio handiko ekitaldiak ere izango dira: Sukalki Eguna, Ferixa Nausia, karrozen jaitsiera...

Aritz Maldonado ELORRIO

Abuztuaren 31ko txupinazoagaz hasiko dituzte Ferixa Nausikoak Elorrioren. 100 urte bete dituen Elorrio Futbol Taldea izango da pregoilaria. "Oso polita da taldeak 100 urte egin izana eta poztasun hori denekin konpartitzeko aukera izatea", azaldu du Gontzal Arana taldeko entrenatzaileak.

Jaietako egitarauan 80 ekitalditik gora aurreikusitako dituzte. Kontzertu eta kale ikuskizun ugarik giroa dituzte jaiak. Bestalde, irailaren 8ko bertso saioaren ondoren, Aukeran dantza konpainiak *Aiurri* ikuskizuna taularatuko du plazan. Eta jaietako ematen dien Ferixa Nausiak 20 artisau eta 45 nekazari eta ekoizle batuko ditu. Txosnaguneari dagokionez, aurtengo kartelburuak Unidad Alavesa eta Nogen taldeak izango dira.

Eraso matxista eta arrazisten inguruko prebentzio kanpaina martxan izango da eta bi dina-



Udal ordezkariak, pregoilariak eta Anbotoko zuzendaria jaien aurkezpenean.

mizatzaile more kaleetan zehar ibiliko dira informazioa zabalitzen, Julene Lazkano alkateak azaldu duenez.

Aurtengo jaietako aurrekontua 200.000 eurokoa izango da, iazkoa baino 30.000 euro gehia-

go, udal arduradunek jaien aurkezpenean azaldu dutenez.

Maite Blanco elorriarrak irabazi du aurtengo jaietako kartel lehiaketa. ANBOTOK ematen duen 500 euroko saria jaso du Blancok.



Biribilgunearen infografia. ELORRIOKO UDALA

Kurutziagako biribilgunea errealitate egin gura dute

Kamioiek eta autobusek ziurtatuta izango dute maniobrak egitea, Aldatsekuari lekua hartuta

Ekaitz Herrera ELORRIO

Elorrioko Udalak legegintzaldi honetan bertan ipini gura du funtzionamenduan Kurutziaga kaleko biribilgunea berria. Obra amaitu arteko tartean, hainbat pauso eman beharko dute. Gero, finantziario bideak lortzeko prozesua hasiko dute. Horren ondoren, obrak lizitaziora aterako dituzte, eta, azkenik, obra bera gauzatuko dute. Udal iturriek jakinarazi dutenez, bidegurutzean "ezin da miraririk egin", baina aurreratu dutenez kamioi handiek eta eta autobusek ziurtatuta izango dute maniobrak egitea. Horretarako, 26 metroko

diametroa duen biribilgunea diseinatu dute. Hori dela eta, errotadak leku apur bat hartuko dio Aldatsekuaren aurrealdeari. Lorategi eremua berrantolatu egin beharko dela jakinarazi du udalak. Obretan egingo dituzten beste esku hartze batzuk espaloiak eta errepidea maila berean ipintzea izango da. Zoladura berezi bat erabiliko dute horretarako. Bestalde, Elizburu, Ibaikua eta Urki-zuaren kaleetako espaloiak guztiz berrituko dituzte. Proiektu honen ondoren, udalak irtenbidea eman gura dio udalerriko zirkulazio arazo garrantzitsu bati.

A. M. BERRIZ

Jai giroagaz jarraitzeko, San Kristobal Txiki jaiak ospatuko dituzte asteburuan Berrizen. Goizean, 10:30ean hasiko dituzte ospakizunak, eta 11:30ean meza egingo dute. Ondoren, salda eta pintxoak egongo dira denentzat. Ireminie dantza taldeko kideek dantzan egingo dute gero.

Arratsaldean umeentzako jolasak eta bolo txapelketa egongo dira bertaratzen direnentzat. Bestalde, egun osoan zehar hainbat ekintza egongo da. Esaterako, euskal tonbola (sari zuzena izango du); bestalde, igel txapelketa ere egingo dute, eta saria parte hartzaile kopuruaren arabera izango da. Gazta-pisu lehiaketa ere egingo dute, eta asmatzen duenak gazta bera eramango du.

San Kristobal Txikiko jaiak ospatuko dituzte Berrizen

Egun osoko egitaraua prestatu dute jaietako gozatzeko



San Kristobal ermita.

Azpiri eta Reyes garaile Enrike Renteria pintura lehiaketan

Aire zabaleko modalitatean zazpi sari banatu dituzte, eta Zintzilik modalitatean lau izan dira sarituak

A. M. ZORNOTZA

Enrike Renteria pintura lehiaketaren 26. edizioa izan da asteburuan. Zintzilik modalitatean Aratz Azpiri durangarrak eraman zuen lehenengo saria. Aire zabaleko modalitatean Jose Ramon Reyes izan zen irabazlea. 500 euroko sari bana irabazi zuten. Guztira, hamaika sari banatu zituzten uztailearen 7an egindako ekitaldian; zazpi aire zabaleko modalitatean, eta lau Zintziliken. Lehiaketa Zornotza Arte eta Kultura elkarteak antolatuta du beste urte batez, Zor-


notzako Udalaren laguntzagaz. Sari banaketa ekitaldian Bego Renteriak, Enrike Renteria zeneren alabak, parte hartu zuen, Ainhoa Salterain eta Koldo Bilbao gaz batera.

Erakusketa ikusgai

Aire zabaleko modalitatean sarituriko lanak Zelaieta zentroko erakusketa aretoan ikusgai egongo dira uztailean zehar. Horrez gainera, horien salmentatik jasoriko dirua helburu sozial baterako erabiliko dute, Zornotzako Udalaren esanetan.

Uda honetan jarraitu Durangaldeko berririk freskoenak **Anbotoren kanalean**

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea:**



* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

UZTAILEKO ZOZKETAK



Hotel Balneario Areatzan bi gaua, gosaria eta zirkuitu termala.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz: Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Donien Atxa jasotzeko ekitaldia, martitzenean. AINHOA URIEN

Artisauak, garagardo dastatzea eta rocka Mendiolako jaietan

Auzo Eskola zaharraren inguruan ekitaldi ugari egongo da asteburuan. Gaur rock kontzertuak izango dituzte

Ekaitz Herrera ABADIÑO
Martitzenean hasi zituzten jaiak, Donien Atxa jasota eta bertso saioak lagunduriko berakatz zopa tradizionala janda. Eguaztenean, San Kristobal eguneko meza eta dantza saioa izan zituzten. Horiak guztiak nahikoa ez, eta asteburu honetan jai egitarauaren atalik zabalenez gozatuko dute Mendiolan.

Gaurko lehenengo ekintza Garaiko garagardogileen zerbezak dastatzea izango da. 19:30ean ekingo diote dastatzeari. 20:30ean parrillada egingo dute, eta 22:00etatik aurrera rock taldeak

izango dituzte eszenatokian: Erromintxelak, Garratz, eta Baske Street Boys. Zapatuan giro herrikoia nagusituko da auzoan. 14:00etan herri bazkaria izango dute, eta, ondoren, Eixu artisau elkarteko kideen azoka. 19:00etan tortilla txapelketa egongo da, eta 22:00etan Luhartzen erromeria.

Domekan sartuko dira jaien azken txanpan. Auzokoa den Alluitz dantza taldearen emeraldia (12:00) eta Ugasixo eta bolo txapelketak (13:00) izango dituzte. Donien Atxa botata agurtuko dituzte jaiak (14:00).

Abadiñoako adinekoen egoitza "bide onetik" doala dio udalak

Elixabete Etxanobe ahaldu nagusia Abadiñoako eta Durangoko alkateekin batu zen eguazten goizean

Ekaitz Herrera ABADIÑO / DURANGO
Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahaldu nagusia Abadiñoako eta Durangoko udal ordezkariekin batu zen eguaztenean, Bizkaiko hainbat eskualdetan egiten dabilen bilera sortaren barruan. Abadiñoaren kasuan, Aldundiak eta udalak udalerrian eraikiko den adinekoen egoitza izan zuten hizpide. Erakunde bien arteko elkarlana "bide onetik" doala adierazi du udalak, eta gaineratu du adinekoen egoitza "2026-2027. urteetarako egotea" espero duela. Era berean, ins-



Durangoko eta Abadiñoako bilerak.

Autobus gautxoria erabilgarri

Abadiñoako Udalak gaueko autobus zerbitzua ipini du jaizaleak autoa hartu barik mugitu daitezzen udalerriko auzo nagusietatik Mendiolara (eta buelta). Autobus txiki bat izango da eta geldione hauek egingo ditu: Traña-Matiena, Zelaieta, Muntsaratz, Andra Mari eta Mendiola.

Irteerak Traña-Matienatik Mendiolara

- 19:00
- 20:00
- 21:00
- 22:00
- 23:00
- 00:00
- 01:00
- 02:00

Irteerak Mendiolatik Traña-Matienara

- 19:30
- 20:30
- 21:30
- 22:30
- 23:30
- 00:30
- 01:30
- 02:30

talazio horretan eguneko zentroa ipintzeko aukera planteatu dio Aldundiari. Egoitza Traña-Matienan edo Zelaietan kokatzea gura du udalak, eta azken auzo honetan instalatzen bada, Ibar-goiti jauregian (Zelaieta Hotela izandakoa). Mikel Urrutia alkateak erakunde bien arteko elkarlana goraiatu du: "Garrantzitsua da bide berean lan egiten jarraitzea, herritarren ongizateari begira lanean gabilta eta".

Bestalde, Etxanobe Durangoko udal ordezkariekin ere batu zen eguaztenean. Topaketan hainbat gai jorratu zuten eskualdeko herritarren bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Irisgarritasuna, mugikortasuna eta ingurumena batetik, eta eskualdean gauzatuko diren foru-eskumeneko hainbat proiektu bestetik.



Igor Agirre, Orlan Isoird eta Erramun Osa, goi tentsioko linea berria ipini gura den eremuan.

Hiru alkate goi tentsioko linea berriaren kontra

Mallabiko, Berrizko eta Garaiko alkateak Valdejasa (Aragoi) eta Gatika artean eraikitzea aurreikusita dagoen linearen kontra agertu dira. Hiru udalek errekurtsioa aurkeztu dute lurra, herritarren osasuna eta fauna kaltetu daitezkeelakoan

Askotariko ekintzak gozagarri Mañariko udalekuetan

J.D. MAÑARIA

Berbaro euskara elkarteak lehenengo antolatatu ditu Mañariko udalekuak, eta gustura daude orain arte izan duten harreragaz. Ekainaren 24an hasi ziren eta uztailearen 19ra arte iraungo dute. 4tik 16 urtera arteko 70 bat ume eta gazte dituzte eta Mañaria eta inguruko herrieta-koak dira.

Ohiko udalekuez gainera, joan zen astean udaleku ibiltaria egin zuten 30 bat gaztegez. Etaparik etapa, Bergara, Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Ondarroa herriak bisitatu zituzten, bost egunean. Herririk herri hainbat ekintza egin zuten. Esaterako, Ondarroan, itsasoan arraunean ibili ziren herriko arraun taldeagaz. Eta Mendaron bertso afaria egin zuten.

Ohiko udalekuetan ere hainbat ekintza egiten dute. Esaterako, martitzenetan igerilekura joaten dira, eguaztenetan hondartzara, eta barikuetan egunpasa egiten dute.

Herriko Taldeak ezohiko osoko bilkura egitea eskatu du

Berrizko anbulatorioaren egoera aztertu gura dute udalbatzan. Egoera "kezkarria" dela diote

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko Herriko Taldeak ezohiko osoko bilkura bat antolatzea eskatu dio Erramun Osa alkateari, "Berrizko kontsultategiko arreta medikoak sorturiko egoera kezkarria aztertzeko". Plataformako kideen iritziz, Berrizko osasun etxeak gaur egun eskaintzen duen arreta "jasanezina" da, mediku bakarragaz "ezinezkoa" delako 5.000 biztanleren osasun arreta era "egoki eta duinean" eskaintzea. Hori dela eta, orain aste batzuk Berrizko udalbatzak aho batez onarturiko adierazpen bera onartu gura dute Garain. Herriko Taldea "baikor" dago, eta, Berrizen gertatu den moduan, udalerriko adierazpena "aho batez" onartzea espero du. Osasungintza publikoari buruzko kezka ez dira berriak Garain. Otsailean, Erramun Osa Garai-



Herriko Taldeko kide batzuk. H.T.

ko alkatea Gotzone Sagardui osasun sailburu ohiagaz batu zen, 2015ean kendutako kontsultategia zabaltzeko aukerez berba egiteko. Ekainean, herritar talde batek protesta egin zuen Garaiko plazan, Berrizko osasun etxeko egoera lehengoratu zedin eskatzeko.

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Mallabiko, Berrizko eta Garaiko alkateak Castejón de Valdejasa (Aragoi) eta Gatika (Bizkaia) lotzea aurreikusten duen goi tentsioko linea berriaren kontra agertu dira. Igor Agirrek, Orlan Isoirdek eta Erramun Osak adierazi dutenez, proiektua "ezin da onartu eta ez dago justifikatzerik". Azpiegiturak "paisaiak hondatu eta pertsona ugari nahiz zeharkatutako eskualdeen etorkizuna baldintzatuko" lukeela iritzi diote, eta, gaineratu dutenez, "ez dauka ezelako zentzurik trantsizio energetikoaz berba egiteak, horretarako, kontsumo gunearen ikuspegitik, lekutan sortzen diren energia berriztagarriak erabili behar badira". Hiru alkateek honako hauek zerrendatu dituzte proiektuak ekarriko lituzkeen kalteen artean: eremu elektromagnetikoak herritarren osasunari eragitea, galtzeko arriskuan dauden edo kalteberak diren animaliak mehatxatzea, eta herritarren lurretan elektrizitatea garraiatu ahal izateko eraiki beharko liratekeen dorreak altxatzea. Hamahiru dorre eraikiko lira-

teke Berrizen, sei Garain eta bat Mallabian. Edozelan ere, hiru arduradun politikoez argitu dute honako hau ez dela udalerriotatik igaroko litzatekeen lehenengo autobide elektrikoa, hirugarrena baino. Aipaturiko guztia dela eta, proiektuaren kontrako alegazioak aurkeztu eta helegitea ipini dute Ingurumen Zuzendaritzak proiektuari argi berdea ematen dion ebazpenaren kontra. "Gure bizilagunak defendatuko ditugu, gure ingurunea defendatuko dugu eta beste erakunde batzuek gure ahaleginagaz bat egitea eskatuko dugu", esan dute.

Proiektua bultzatzen duen enpresak Zaragoza aldean sortzen duen elektrizitatea garraiatu gura du Euskal Herriko hainbat bazterretara. Aurreikusitako lineatariko batek Nafarroa zeharkatu eta Gasteiz aldera egingo luke; beste lineak Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaia zeharkatu eta Gatika izango luke helmuga. Azken trazadura honek Durangaldeko hainbat udalerriri eragingo lieke. Aipaturiko hiru udalerriei, eta baita Zaldibarrri, Iurretari eta Zornotzari ere.

Zaldibarko Mendi Martxaren 45. edizioa egingo dute zapatuan

Martxan parte hartzen duten ibiltariak 25 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik. 07:00etan irtengo dira

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldua Mendi Taldeak udalerriko mendi martxaren edizio berri bat antolatatu du zapatu honetarako. Ibiltariak 07:00etan irtengo dira Zaldua plazatik, 25 kilometroko ibilbidea egiteko asmoz. Bidean, 1.100 metroko desnibel positiboari egin beharko diote aurre. Bertan parte hartzen dutenek sei ordu eta

erdiko denbora izango dute, gehienez, martxa egiteko.

Izen emateak

Mendi taldeko kideak martxa hasi baino ordu bete lehenago hasiko dira parte hartzaileen inskripzioak egiten, 06:00etan. Federaturiko kideek 10 euro odaindu beharko dute, eta federatuta ez daudenek 15.



Mendi martxaren aurreko edizio bateko irudia. ZALDUA MENDI TALDEA

32 ume sahararrek Durangaldean pasatuko dute uda sasoia

Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarte bitartez etorri dira, Oporrak Bakean programaren barruan

Aitziber Basauri DURANGO

Asteon, Durangoko Udalak ongi-etorria egin die Oporrak Bakean egitasmoaren eskutik Durangaldera etorritako ume sahararrei. Saharako errefuxiatuen kanpamentuetatik etorri dira, uda

hemen pasatzeko; 32 umek egingo dute egonaldia eskualdean. Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan, "udaz disfrutatzeko leku segurua eskaintzea da helburua, bakean eta maitasun handiagaz". Ume hauek elika-

dura egokia izateko eta azterketa medikoa egiteko aukera izango dute.

Euskadiko Saharako Ordezkaritzak bultzaturiko programa da Oporrak Bakean, eta Durangaldeko Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarte bitartez etorri dira ume sahararrak. Durangoko Udalak lankidetzaz hitzarmena du elkarte bi horiekin, eta 47.000 eta 13.500 euroko diru laguntza jasotzen dute, hurrenez hurren. Elkoroiribek eskertu egin die egiten duten lana.



Durangoko udaletxearen aurrean atzo ateratako famili argazkia.

DURANGALDEA ASTEON

Hiru atxilotu Durangoko lapurretekin lotuta

DURANGO Ertzaintzak, Alacanteko eta Malagako Polizia Nazionalagaz elkarlanean, hiru lagun atxilotu zituen joan zen asteburuan, Durangoko eta Espainiako estatuko hainbat etxebizitzatan lapurretak egitea egotzita. Ustezko gaizkileek auto alokatuak erabiltzen zizuten batetik bestera ibiltzeko, eta beste kide baten laguntza izaten zuten objektuak biltegitratzeko. Poliziak bitxiak, telefonoak eta eraikinak zabaltzeko erremintak berreskuratu zituen.



Berreskuratutako objektuak. ERTZAINZTA

Gazteen emantzipaziorako laguntzak Elorrioren

ELORRIO Elorrioko Udalak hiru diru laguntza argitaratu ditu. Batetik, 2023ko abenduaren 31n 25-29 urte zituztenek laguntza eskatu ahal izango dute alokairua ordaintzeko. Bestalde, 18tik 30 urtera bitarteko elorriarrei diruz lagunduko die unibertsitaterako edo heziketa zikloetarako garraioa ordaintzeko. Azkenik, 2024an nazioarteko, estatu espainiarreko edo erkidegoko txapelketetan bakarka parte hartu duten elorriarren gastuak finantzatzeko laguntza onartu dute.



Etxebizitzak Elorrioren. ELORRIKO UDALA

DRTko kide bi Europako txapelkunorde

DURANGO Joan zen asteburuan Europako 7S M18 txapelketa jokatu zen Estrasburgon (Frantzia), eta Durango Rugby Taldeko kide bik, Goretzi Barrutietak eta Manex Pujanak, bertan parte hartu zuten, Espainiako selekzioaren aterkipean. Jokalari biak zilarrezko postua eskuratuta bueltatu ziren handik. Emakumeen eta gizonen selekzioek talde anfitrioiaren aurka galdu zuten. 15-12 emakumeek, eta 26-7 gizonen.



Pujana eta Barrutieta. DRT

GUTUNAK

Gurea da eskola publikoa aukeratzeko eskubidea

RUTH IRIONDO ARCARAZO

VÍCTOR ARES GONDRA

EIDER ALAIOGOIKOA ABAUNZA

IÑIGO URANGA CALVO

IURRETA

Maiztegi Herri Eskolak (Iurreta) eskaintzen duen metodologia hobesten dute Eider Alaiogoikoa/Iñigo Uranga eta Ruth Iriondo/Victor Ares bikoteek beraien 2 urteko alabentzat. Zoritxarrez, Hezkuntzak aplikatu berri duen legearen ondorioz bi ume hauek kanpoan gelditu dira plaza librean egon arren. Ikastetxe honek 36 plaza eskaintzen ditu eta 25 matrikulazio bakarrik onartu dira, 11 plaza libre utziz. Hezkuntzak aplikatutako legeak ume zaugarriak eta ume ez zaugarriak bereizten ditu eta

zaugarrientzat plaza batzuk aurrekusten ditu. Gure ustetan, araudiak malguagoa izan beharko luke, 11 plaza libre uztea astakeria dela deritzogulako.

Zentzugabekeria iruditzen zaigu egoera hau izanik orain 5 ume zaugarrik matrikulatu beharra ume ez zaugarri bat matrikulatu ahal izateko. Gainera, 25 matrikulatu horietatik gutxi batzuk ez dira ikasturte osoan eskolara joango. Nola da posible haurreskolan faltak justifikatu behar izatea haurra kaleratua ez izateko, eta eskolan matrikula onartu eta umea ikasturte osoan ez joatea inongo ondorioz gabe? Bukatzeko, plaza libre eta ikastetxearen onarpena izanez, ez zaigu bidezkoa iruditzen familia bati bere semea edo alaba nahi duten eskola publikoan matrikulatzeko eskubidea kentzea.

Zure gutuna helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

OTXANDIOKO SANTAMAÑA JAIAK 2024



OTXANDIOKO JAIAK  UZTAILAK
13, 17, 18
19, 20 eta 21

2024  

GORA SANTAMAÑAK!



JAIETAKO EGITARAUA

UZTAILAK 13

GAZTE EGUNA

13:00 Txupinazoa, Gaztetxean
Ondoren, karropoteoa

14:30 Bazkaria
Ondoren, bingoa

18:00 Olinpiadak

21:00 Kontzertuak: Fito Skins
+ Txerrikumeak + Añube + DJ
Yiyi + DJ Lamikiz
Gaztetxean

UZTAILAK 17

15:00 Herri bazkaria

18:30 Ohiko Salve Regina,
Oihandi abesbatzagaz batera

18:55 Soinubilen eskutik, 'Gora
otxandioarrak' abestia

19:00 Herriko dendari eta
tabernariak txupina botako
dute. Jarraian, danborrada

20:00 Otxandioko presoen
eskubideen aldeko
elkarretaratzea
Giza Eskubideen Udal Batzordeak
deituta
Plazan

20:30 Eusko Label haragi
pintxoak

22:30 Erromeria Joselu Anaiak
taldeagaz

UZTAILAK 18

SANTA MAÑA EGUNA

11:30 Bandaren kalejira.
Ondoren, txistularien kalejira

12:30 Herriko umeen pilota
partiduak
Meza nagusia Santa Marinaren
omenez

13:00 Herriko umeen pilota
partiduak

14:00 Buruhandiak eta
dultzaineroak

19:00 Urduri dantza taldearen
ikuskitzuna

22:30 Sukar taldearen
erromeria

UZTAILAK 19

HAURREN EGUNA

11:30 Tailerrak
Plazan

12:00 6. mailakoek eguneko

txupina botako dute
Udaletxeko balkoitik

12:05 Puzgarriak eta jolasak

12:30 Arimen meza

13:00 I. Sukaldaritza Erronka

15:00 Bazkaria
Ondoren, izozkia

17:00 DJ Xaibor

17:00 Tute, mus eta briska
txapelketak
Izena ematea 16:30etik aurrera
Udaletxe azpian

19:00 Ogitarteko eta
freskagarriak

19:30 III. Otxandioko goxua
txapelketako finala
"JOSETXU, MOTXILE eta KAITOren
OMENEZ"

22:30 Kuadrillen arteko play
backa

UZTAILAK 20

SAN MARTIN EGUNA

12:00 Otxandioko bandaren
kalejira

12:15 Otxandioko Urbiribil
Dultzainero taldearen kalejira

12:30 Meza San Martineko
baselizan

14:00 Paella txapelketa, San
Martinen

Mahai eta aukien erreserba
egiteko: uztailaren 19an,
08:00etatik 14:00etara
Udaletxean bertan

16:00 Gari eta Iñigo trikitilariak
bazkalostea girotuko dute

19:30 IXTAKLOK
elektrotzaranga
Kaleetan zehar

13:00 Kontzertuak: EIRE + TOC
+ HOFE X 4:40 + MALAKIAS
MX3
Herriko plazan



AIRAKA

Eire.

UZTAILAK 21

AGUR SANTAMAÑAK

07:30 Diana eta kalejira

08:00 Sokamuturra

13:00 Omenaldia 1936an
bonbardaketan hildakoei
Andikonan

13:45 Limonada
Plazan

14:00 Otxandioko eta Araiako
banden kontzertua

17:15 Pilota profesionala
- Larrazabal-Elizegi vs
Zubizarreta-Salaverri
- "Caixa Bank Master
Txapelketa" (I. Jardunaldia)
- Estelarra: Ezkurdia-Albisu vs
Laso-Tolosa
Mañondon

Ondoren, herri kirol ekitaldia
- Vulcano VI. ingude jasotze
txapelketa: Jokin Eizmendi
(aurreko urteetako txapelduna)
eta beste 3 txapeldun
- Vulcano Ingude Jasotze
I. Emakume Mailako Txapelketa
- XXIII. Urrezko Aizkolari
Txapeldunen Liga
- Aizkolarien Emakume Mailako
Biñakako Desafioa
- Aurtengo Biñakako
Txapelketako Errebantxa
8 enbor txanda librean

22:30 Beranduegi erromeria

00:00 Agur Santa Marina

00:30 Beranduegi erromeria

UZTAILAK 22

SOKA DANTZA

19:00 VII. Nesken Soka Dantza
Herriko plazan

ABEL PINTURAK

Abel Axpe Acera Elizondo Plaza, 5 Arrazola- Atxondo
658 721 845

GAZTANETA HARATEGIA

Artekale 25- OTXANDIO
665912614

ULMA

Ondo pasa
jaietan!

Otxandiotik munduan zehar
minerala mugitzen

+34 945 450 075 • www.ulmaconveyor.com



Datorren eguaztenean jaurtiko dute jaiari hasiera emango dien txupinazoa. Ondoren, danborrada hasiko da.

Jaiak gozatzeko egunak, santamañen eskutik

Uztailaren 17an jaurtiko dute santamañei hasiera emango dien txupinazoa. Uztailaren 22ra bitartean, jaiak gozatzeko askotariko ekitaldiak egongo dira Otxandion. Motorrak berotzeko, Gazte Eguna ospatuko dute Gaztetxean, bihar

Aitziber Basauri OTXANDIO

Santamañak hasteko atzerako kontaketa hasi dute Otxandion. Udaletzeko balkoitik jaurtiriko txupinagaz batera lehertuko da jai giroa herriko kale eta bazterretan, eguaztenean. Hala ere, aurretik motorrak berotzen hasteko aukera izango dute. Izan ere, Gazte Eguna ospatuko dute Gaztetxean, zapatuan. Eguerdian txupinazoa jaurtita hasiko dute eguna herriko gazteek. Karropoteoa egingo dute, bazkaltzeko ordua heldu artean. Eta indarra hartuta egingo diete aurre arratsalderako antolatutako olinpiadei. Gaueko kontzertuak borbilduko du eguna. Fito Skins, Txerrikumeak eta Añube taldeek joko dute, Gaztetxean.

Santamaña bezperan hasi eta uztailaren 22ra bitartean, jai giroaz gozatzeko aukera zabala eskaintzen duen egitaraua prestatu du Otxandioko Jai Batzordeak. Tradizio handiko ekitaldiek aurten ere ez dute hutsik egingo. Besteak beste, herriko dantzarien saioa, Oihandi abesbatzak abesturiko Salve Regina, umeentzako jolasak eta puzgarriak, kuadrillen arteko play-backa,

herriko bandaren kalejira, eta San Martineko paella txapelketa izango dituzte. Baita sokamuturra eta 1936ko bonbardaketan hildakoei eginiko omenaldia ere. Aurten, lehenengoz, Sukaldaritza Errokan parte hartzeko aukera ere egongo da.

Musika eta kirola

Musika kontzertuek eta erromeria taldeek berotuko dute gau giroa. Joselu Anaiak, Sukar eta Beranduegi erromeria taldeak etorriko dira Otxandiora. Uztailaren 20an, Mungiako TOC taldea kartelburu izango duen kontzertua egongo da. EIRE, HOFE X 4:40 eta Malakias MX3 taldeak ere igoko dira herriko plazan egokitutako oholtzara. Jaiak agurtu baino lehenago, herri kirolen erakustaldia ikusteko aukera ere egongo da Otxandion. Baita goi mailako pilotari profesionalen arteko esku pilota partidua ere.

Ohiko Agur Santa Marina abestuz agurtuko dituzte jaiak otxandiarrek, uztailaren 21ean. Dena dela, biharamunean VII. Nesken Soka Dantza saioa ikusteko aukera egongo da.

LORA
TABERNA - OTXANDIO

Pintxoak, bazkariak, afariak eta askoz gehiago
Tel.: 627 804 223

- GLP, butanoa, kanpin-gasa
- Kotxeak garbitzeko aukera
- Barbakoa egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 Izurtza
📍 BI-623, 48210 Otxandio

Amenabar
Especialistas en elevación

62 urte jaiak altxatzen eta gozatzeko!

AMENABAR S.A. | Otxandio- Olaeta Errepidea z/g | 01165 - Olaeta (Araba)
Tel. +34 945 450 050 | Faxa +34 945 450 304
www.amenabar.net

HONTZA EXTREM

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com

axpeebike.com
otxandio

Mendiko bizikleta elektrikoaren mailegutza
635 702 034

"Ilusioz hartu dugu pregoia irakurtzeko gonbita"

JAVI AXPE ACERA OSTALARIA ETA DENDARIA

Otxandioko dendari eta tabernariak botako dute Santa Maña jaiari hasiera emango dien txupinazoa, datorren eguaztenean. Horren aurretik, jaietako pregoia irakurriko dute

Joseba Derteano OTXANDIO

Javi Axpe Acera (Otxandio, 1976) Otxandioko ostalaria eta dendaria da, Danoena tabernako arduraduna. Ogia, prentsa, bizikleta elektrikoaren alokairua eta beste zerbitzu batzuk batzen dituen estanko bat ere badu herrian.

Zelan hartu duzue jaietako pregoia irakurtzeko gonbita?

Ilusioz hartu dugu. Herrikoak izanda, oso polita da. Denon artean prestatuko dugu.

Tabernari askori jai egitea barik lan egitea egokituko zaizue.

Beharbada baten bat ezingo da balkoira igo, lanean egongo delako! (barrez). Bizi osoan lan



Javi Axpe, plazaren ondoan dagoen Danoena tabernan.

egin dut gauez jaietan, eta lo egunez. Aurtengoak nire 30. santamaña izango dira tabernan.

Urteurrenak ez du jaietan parranda bat merezi?

Sekula ere ez naiz parrandazalea izan. Zapatuan parrandan joateko esaten badidate ere, seguruenik gurago izango dut barra barruan geratu, urteak ere gorantza doaz eta! Askok gustatzen zait nire lana, eta, tira, barra atzean ere gozatzen ditut jaiak.

Hasi zinenetik hona asko aldatu da tabernetako panorama?

Askok aldatu da, bai. Lehen, jaietan, zein orokorrean, gauez irabazten zen dirua. Orain, jaietako zapatu gaua kenduta, egunez lan gehiago egiten da. Askok begiratzen zaio eguneko zerbitzuari. Esaterako, eguerdiko poteoa zoramena izaten da. Eguneko lanari eragin dion faktore bat terraza da. Orain 20 urte, ez zegoen terrazarik Otxandion, errepidea aurre-aurretik pasatzen zelako. Terrazak daudenetik, plazan hobeto lan egiten dugu. Otxandion zorte handia dugu, bizi handia dagoelako kalean.

Jendea kaletarra da eta tabernek bizi handia dute Otxandion.

Zelan ikusten duzue komertzioaren egoera?

Otxandion komertzioak beherantza doazela ikusten dut. Jendeak saltoki handietan egiten ditu erosketak, urrun egonda ere. Esate baterako, gazteak asteko erosketak eginda etortzen dira lanetik. Baina ez da Otxandioko kontua bakarrik. Pena da, baina munduak bide hori hartu du. Horrez gainera, jendea ez dago prest komertzio bat izateko, jendeak ez du autonomo izan gura. Ondo joanda ere ez luke gura. Nik ondo doazen negozio bi ditut, baina oso esklaboak dira, beti gainean egon behar duzu eta. Urtean hamabost egunez hartzen ditut oporrak.

Turismoa gehigarri bat da?

Jaiak kenduta, tabernan eta dendan abuztua da hilerik onena. Pisu turistiko bat dut estanko gainean, iaztik, eta irailera arte beterik daukat. Turista asko etortzen da Otxandiora, Euskal Herriaren erdian dagoelako; leku aproposan, Bilbora, Donostiara zein Gasteizera joateko.

**ZUHAITZ ETXEA
JATETXEA**

Artekale, 32 - Otxandio
Tel.: 945 450 973

LOREZAINZA - ZERBITZUAK - INGURUMENA
Soropil artifiziala hornitzea eta instalatzea
Tel.: 610 400 414 / 607 412 773

www.crisangarden.com

danoena

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

LOFENG SSHUO S.L

EIT Eraikinen Ikuskeren Teknikoak · Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak · Arkitekturako eta interiorismoko proiektuak eta erreformak · Obra-zuzendaritza

Tel.: 639 613 580 (Lorenzo Cubero)
620 570 294 (Sofía Sánchez)

**RUIZ DE INFANTE
ERAIKUNTZAK
eta
BIRGAITZEAK**

OTXANDIO
Tel: 670 975 722
j.a.ruizdeinfante@gmail.com

ZORNOTZAKO SANTANATXU ETA KARMEN JAIAK 2024



AMOREBIETA-ETXANOKO JAIIAK 2024
KARMENAK ETA SANTANATXU - UZTAILAK 15 - 27

JAI EGITARRAUA



ZORNOTZAKO KARMEN ETA SANTANATXU JAIK Gatibu

Kontzertua.

Uztailak 15, astelehena, Zubiondon, 22:30ean.

UZTAILAK 15

20:00 Pregoia, txupinazoa eta ZORHONTZAREN kalejira, Herriko plazan

Ondalan, Bergarako BET, Txantreako eta Amorebieta-Etxanoko UDAZKEN BARRIA, eta ETXANOKO erraldoi eta buruhandien konpartsak, UDAZKEN txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Banda eta TRIKI PIU taldea

21:00 Kaleko Musika MISTER TEAM

Kalbario/ Euskal Herria plaza/ Harrison

22:30 Kontzertua: Gatibu + Akerbeltz
Zubiondo

23:30 Kontzertua: Micky
Zelaieta parkea

UZTAILAK 16

12:00 Karmen Eguneko Jaia Meza, bertsolariak, UDABARRI erromeria TRIKI PIU taldeagaz.
Larrea

OSTEAN, Larreako landetan XXIII. Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga

JOKIN BASOZABAL (Gazte mailako txapelduna)
ARKAITZ ETXEBEZTE (Urrezko binakako txapelduna)

HARRIJASOTZAILEAK
MIKEL LOPETEGI "Urra" (Euskadiko txapelduna)
LIERNI OSA (Zarautz)

16:00 ZORNOTZAGOL Futbol7 jaietako txapelketa (mistoa)

Larreako Futbol Zelaia

18:00- 21:00 Txiki Txef
Herriko plaza

18:00 Pilota partidu profesionalak
Amorebieta IV frontoia
SENAR-LIZEAGA
ZUBIZARRETA-MORGAETXEBARRIA

18:30 Gazteen arteko ginkana
Herriatik zehar

21:00 Bertsolariak
OIHANA BARTRA
XABAT GALLETEBEITIA
JULIO SOTO
AISSA INTXAUSTI
Gai jartzailea: Zornotzako eta Abar Bertso Eskola

Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua: Seiren
Zubiondo plaza

UZTAILAK 17

16:00 ZORNOTZAGOL Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa)

Larreako Futbol Zelaia

21:00 Kontzertua: Fitoskins
Zubiondo parkea

UZTAILAK 18

16:00 ZORNOTZAGOL Futbol7 jaietako txapelketa (mistoa).

Larreako Futbol Zelaia

17:30 Akrobazien erakustaldia eta tailerra

Sergi Sarmiento SERFLIPS
Herriko plaza

17:30 XV. Pala Txapelketa Herriko Txapelketako finalak (emakumeak eta gizonak)

Amorebieta IV Frontoia

18:00 Hitanoa ikasteko tailerra
Zelaieta parkea

19:00 Bertso saioa: Hika eta Noka

Miren Amuriza eta Igor Elortza
Zelaieta parkea

19:00 Pintxopotea eta ORRUES erromeria

Zubiondo parkea

19:30 Kantu Poteoa Soraia Agirregoikok gidatua

Zelaietatik abiatuta

20:00 Mus Txapelketa
Zelaieta parkea

UZTAILAK 19

11:00 - 14:00/ 17:00 - 19:00 Umeentzako parkea
Gernika plaza

13:00 Gazteen kalejira
Herriatik zehar

15:00 Gazteen arteko bazkaria eta bazkalostea
Zelaieta parkea

18:00 Sakatu elektrotzaranga
Luis Urrengoetxea

21:30 Txistularien XXIV. kontzertua

Artista gonbidatua: Anje Duhalde
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertuak: Eztandap + Iزارo
Zubiondo plaza

UZTAILAK 20

10:00 Basket 3x3
Zubiondo parkea

10:30 Marmitako lehiaketa
Zubiondo parkea

11:00 Umeentzako bolo txapelketa

Gure kirolak bolatokian

16:00 Orkresta elektrotzaranga
Zelaieta parkea/ Euskal Herria plaza/Harrison parkea

16:00 Karaoke ibiltaria
Zubiondo parkea/ Andra Mari plaza

16:00 Disko Festa ibiltaria
Bayo Show
San Juan kalea/ Gernika plaza

17:00 Karmenetako XVI. esku pilota txapelketa

Eskola artekoen finalak
Federatuen finalak
Amorebieta IV frontoia

19:00 Kittu
Arraibi plaza

20:00 Kittu
Luis Urrengoetxea

21:00 Karmenetako XII. bolo txapelketa

Gure Kirolak bolatokia

22:30 Orkestra EN ESENZIA
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua: Tanxugueiras + DJ Pary & Tiza
Zubiondo plaza

UZTAILAK 21

10:00 XLII. XAKE TXAPELKETA
Agustin Zamakona memoriala
Herriko plaza

10:00 Motorren topaketa
Gernika plaza

11:00 Ontzi modelismoaren erakustaldia
Jauregibarra

11:00 Euskal Herriko Artzain txakurren txapelketa
Jauregibarra parkea

12:00 Arku-tiroa
Jauregibarra

16:00 Gazteen arteko piragua jaitsiera
Ibaizabal erreka

17:00 Bizikleta eguna
Zubiondo parkea

19:00 BATETIK BESTERA
Benetan be
Umeentzako kontzertua
Zelaieta parkea

22:00 Kontzertua: Carmina Burana
Zornotzako Musika Banda, Areatzako Musika Banda, Bilboko Koral elkarte, Abeskimu, Zornoza korala eta Zubiaur Musika Eskolako haurren koroa
Zubiondo plaza

UZTAILAK 22

13:00 Karropoteoa
Herritik zehar, Harrison kalean hasita

13:00 Txosnarien bazkaria
Zubiondo parkea

Ondoren, Larru eta txosnalagunak

19:00 Kontzertua eta DJ emanaldia
Zubiondo parkea

19:00 Xaibor
Arraibi plaza

UZTAILAK 23

17:00 Gazteen arteko herri kirolak
Zubiondo parkea

22:00 Kontzertua: Mikel Urdangarin
Zelaieta parkea

UZTAILAK 24

11:00-14:00 / 17:00 - 19:00 Euskal Mitologia jolasak
Euskal Herria plaza

20:00 Welcome & Sorry kale antzerkia (Ganso&Gia)
Herriko plaza

22:00 Danborrada
Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza

23:00 Kontzertua: Esne Beltza + Zutik erromeria
Zubiondo plaza

00:00 Kontzertua: La Década Prodigiosa
Zelaieta parkea

UZTAILAK 25

Goizean Baserritarren azoka
Zezilia Gallartzagotia

13:00 Udabarri dantza taldea
Zelaieta parkea

14:15 Aitite-amamen bazkaria
Izena emateko: Nafarroa zentroa Ateen irekiera: 13:45
Amorebieta IV frontoia

16:00 Triki Piu + DJ Koldo Amorebieta IV frontoia

11:00 - 14:00/ 17:00 - 19:00 Umeentzako parkea
Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak
Gure Kirolak frontoia

12:00 Open skateboard Euskadiko Txapelketa
Zubiondo parkea

12:00 Triki Piu
Gernika Plaza / Andra Mari Plaza/ Zezilia Gallartzagotia

19:30 Gazteen arteko Play-back lehiaketa
Zelaieta parkea

21:00 U75 kale antzerkia euskaraz
Ogenbarrena

22:45 Su Lagunkoia Valecea Piroteknia
Herriko plaza

23:00 Lehian erromeria
Zubiondo plaza

UZTAILAK 26

11:30 - 14:00 Txitatoki Zirkus
Umeentzako zirku azoka ikuskizuna
Ogenbarrena

19:00 Umeen danborrada
Ibilbidea: Ibaizabal, Nafarroa, San Juan, San Miguel, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen kalea, Zelaieta

23:00 Mariatxi Imperial Elegancia Mexicana
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua: Süne + J Martina
Zubiondo plaza

UZTAILAK 27

MOZORRO EGUNA: SANTANAZOO

10:00 Plater-tiroa
Boroa

13:00 Gazteen kalejira
Herritik zehar

13:00 Gaztedi fanfarrea
Zezilia Gallartzagotia - Sabino Arana

16:00 Amorebieta - Etxanoko

VI. Duatloi txikia
Zelaieta parkea parkea

16:30 Azken Froga
Arraibi plaza

18:00 Umeentzako perkusioa Tailerra kalejirarako
Gure Kirolak

13:00 Zornotza 11Kolare eta Zorhontzaren agurra Aniztasunaren kalejira
Talde gonbidatuak: Sagarra eta Sagarra, Gure Musikari Handiak
Gure Kirolak - Jauregizahar- San Miguel kalea - Herriko plaza

19:30 Parte hartzaileen erakustaldia ZORHONTZAREN AGURRA
Herriko plaza

20:30 El Despiste Fanfarrea
Luis Urrengoetxea

20:30 Disko ibiltaria Soun-4
Arraibi plaza/ San Juan kalea/ Gernika plaza

22:00 Adexe y Nau, Hilario, César AC, Nía Caro, Nils Van Zandt, Megastar FM
Zelaieta parkea

22:30 Kontzertua: Supercremalleras + Kaotiko
Zubiondo plaza



kontsumo taldea
iraunkor
amorebieta-etxano

S. Juan, 3 // 48340-AMOREBIETA-ETXANO

kontsumo taldea

*bertoko elikadura
*bermatua
*ekologikoa

648646685 - www.iraunkor.eus

Egin bazkide

- Ibarra-Bilene-Urikoo-Uxarte-
- Errotik - Uxar - Bizkaigone -
- Orahuntz - Ekaalde -
- Corrañak - Los Akores -
- Broastua - Eron - Goiturra -
- Etxauri - Etxaurra - Urdin-
- Atxineta - Laura - BogaBoga
- Ditare - Kaitxo - Onaindi -
- Iturrikoa - Korostondo -



ANDRAMARI

ZORNOTZAKO IKASTOLA

ONDO PASA JAIETAN!!

📍 Larrea Auzoa z/g- 48340 Amorebieta-Etxano

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus

"Larrea Eskola denona eta denontzat dela gogoratuko dugu"

LEIRE ALDAZABAL SOLAGUREN LARREA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Astelehenean udaletxeko plaza jendez gainezka egongo da jaietako txupinazioa bizitzeko. Ekitaldi horretako pregoia Larrea Eskolako kideek irakurriko dute

Jone Guenetxea PREGOIA

Jaietako hasiera ematen dien pregoia Larrea Eskolako jaietako du aurten. Dena prest dute 50. urteurreneko ekitaldi sortari ginga ipintzeko. Leire Aldazabal Solaguren (Zornotza, 1976) ikastetxeko zuzendari berria da. Ikasle izan zen lehenengo, guraso eta irakasle gero, eta orain zentroko arduradun nagusia da.

Zelan jaso duzue pregoia botatzeko enkargua?

Poztasun handia izan da. Ez genuen inondik inora espero. **Pentsatu duzue mezua?**

Zornotzar guztiei eskerrak eman go dizkiegu aukera hori eskaintzearen. Jaietan moduan, Larrea Eskola ere denona eta denontzat dela gogoratuko dugu. Bestalde, nabarmendu gura dugu muga soziala oso presente izan behar dugula denok ondo pasatzeko. Hau da, ondo pasatzea gure eskubidea bada, albokoarena ere bai. Errespetuz jokatzu, tolerantia izan behar dugu. Eta kontuan hartu behar da emakumeek eta neska gazteek lasai eta aske ibili gura dutela edozein tokitan: kalean, etxean zein jai giroan. Gure generoa edozein izanda ere, elkarri lagundu eta elkar errespetatu behar dugu.

50. urteurrena ospatu duzue.



Leire Aldazabal, Larrea Eskolako LHko eraikinaren ondoan.

Ikasturte osoan zehar 50. urteurreneko ekitaldiak antolatu ditugu. Joan zen irailean urteurreneko logoa aukeratu genuen, hezkuntza komunitate osoaren botoak jasota. Hasierako ekitaldia abenduan egin genuen. Aukeraturiko logo hori kutxetan marraztu eta mosaiko bat egin genuen. Ikasle ohi, langile, ume eta familiek parte hartu zuten. Oso polita izan zen. Gainera, Mende erdi kanta sortu genuen. Letra eskolan lan egiten duen Xabier Irakulis bertsolariarena da eta ikasle ohiek musika ipi-

ni diote. Bideokliperako, geletako momentu zehatz batzuetako irudiak hartu ditugu. Bestalde, urteurrenaren harira, bideo bat sortu dugu eta apirilean horren aurkezpena egin genuen. **Hezkuntza arloan aldaketa asko gertatzen ari dira. Zelan bizi duzue egoera hori?**

Lasai gaude. Amara Berri sistema erabiltzen dugu; hainbat legealdi pasatu du eta denetara egokitu da. Gaur egungo kompetentzietan oinarrituriko dekretua kaleratu zen joan zen ikasturtean, eta gure metodologia-

ri oso ondo egokitzen zaio. Aldaketa eta hobekuntzak egin ditugu. Beste aldatetarikoa bat jaiotze tasarena da. Guk Zornotzako jaiotze tasaren %40 jasotzen dugu, gutxi gorabehera. Lehen, 2 urteko geletan 80 bat ikasle genituen, eta orain 50 inguru ditugu. Beraz, jaitsiera nabarmena da. Lau lerroko ikastetxe bat gara, baina momentu honetan 2 eta 3 urteko mailetan hiru lerro daude. Gai hau lasaitasunez hartzen dugu, horixe delako errealitate berria.

Larrea eskolaren zeintzuk ezaugarri nabarmenduko zenituzke?

Gure aniztasuna azpimarratuko nuke. Kultura eta gaitasun aldetik, oso eskola aberatsa gara. Gizartearen isla gara.

Etorkizunera begira, zeintzuk erronka dituzue?

Erronka asko dugu. Batez ere, elkarbizitza positiboa sustatzea, eta baita ongizate emozionala ere. Bestalde, digitalizazioaren gaia dugu. Digitalizazioa bai, baina zer galtzen ari gara digitalizazioari hainbesteko indarra emanda? LHn, digitalizazioa jarrera kritikotik eta kontzientziaziotik joan beharko litzatekeela uste dut. Gaur egungo gure ikasleak kompetente digitalak dira.

Hezkuntza komunitatearen beste arduerarikoa bat euskararen erabilera sustatzea da.

Urteroko erronka izaten da. Hainbat kanpaina egiten dugu ikasleekin. Kontziente izan behar dugu euskara zein baliotsua den euskaldunontzat. Gure eskolatik asko euskalduntzen dugu gizarte, eta erabilera ere sustatzen dugu. Baina erabileraren jaitsierak arduratu egiten gaitu. Gizarte osoari dagokion lanke-ta da. Ezin da ardura hori eskolaren gain utzi bakarrik.

Denok egin dezakegu gehiago. Aisialdi eta kirol elkarteek eragin handia dute gazteengan, eta uste dut hor gehiago eragin beharko genukeela.

Ikaslea izan zinen, guraso eta irakasle gero, eta orain zuzendari. Zein oroitzen duzue?

Ikasle nintzenean, eskola publikoak beste eskola batzuk zituen auzoetan: herri eskolak. Nik Eubakoan ikasi nuen 5. mailara arte, eta oso esperientzia aberatsa izan zen. 6. mailan Larrea etorri nintzen eta hau beste mundu bat zen. Ikastetxe handia zen. Zabaldu zutenean, 1.800 ikasle zituen, atera kontuak hortik! Sasoi hura nostalgia handiagaz bizi dut; lagunak, irakasleak... Urteak joan eta gero, ama modura itzuli nintzen. Argi dut euskaldunok oso baliotsuak garela eskola publikoan. Oso oroitzen onak ditut. Eta irakasle modura ere oso pozik nago. Amara Berrin oinarrituta, metodologia oso egituratuta dago eta eskolaren kalitatea horretan oinarritzen da.

Eta orain zuzendaria zara. Zelan hartu duzue kargua?

Oso harro nago ikasle, guraso eta irakasle izateagaz. Eta zuzendari modura erronka eta ardura handia da, baina ekingo diogu. Ez nago bakarrik, zuzendaritza talde bikain bat dut eta eskolan profesional bikainak ditugu.

"GURE ANIZTASUNA AZPIMARRATUKO NUKE. OSO ESKOLA ABERATSA GARA"

Uda honetan,
euskaraz bizi, ikasi,
geroa irabazi.

Euskara ikastaroak
zornotzakobarnetegia.eus





Koldo Bilbao, Leire Aldazabal, Ainhoa Salterain, Ana Meaurio eta Ana Urkiza.

Astelehenean hasiko dituzte jaiak Zornotzan

Uztailaren 15etik 27ra ospatuko dituzte Zornotzako jaiak; adin guztietako jendearentzako moduko egitaraua osatu dutela nabarmendu du Zornotzako Udalak, haur eta gazteentzako ekitaldietan "arreta berezia" ipini dutela azpimarratuta

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Larrea eskolako kideek txupina jaurtita hasiko dituzte aurten jaiak zornotzarrek. Behin Zorhontza pertsonaia kalejiran irtenda, herritarrek jaietan murgilduko dira uztailaren 27ra arte. Aurten, jaietan tradizio diren haur eta helduen danborrada, marmitako lehiaketa, aitita-amamen eguna eta beste ekitaldi batzuk ere izango dituzte, baina, batez ere, haur eta gazteei zuzenduriko ekitaldiei ipini diete arreta. Horrela, lehenengo, haurrentzako kontzertua egongo da jaietan; Benetan Be taldeak *Batetik bestera* emanaldia egingo du. Bestalde, 14 eta 16 urtetik beherako skate txapelketa egingo dute, eta, horrez gainera, Txikitxef eta perkusio tailerrak ere egingo dituzte. Era berean, hitanoa ikasteko tailerra ere egingo dute. "Denon gozamenerako egitaraua antolatu dugu, arreta berezia ipinita haur eta gazteen programazioan", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Musika zailek ere izango dute non aukeratu; izan ere, 23 kontzertu izango dira jaietan. Bes-

teak beste, Mikel Urdangarinea, Sine-rena eta Izarorena.

Eskolekin elkarlana

Aurtengo jaietako kartela Igor Fernandez zornotzarrek egin du, komiki estiloan. Baina, kartelaz harago, herriko eskolekin egindako elkarlana azpimarratu gura izan dute. Horrela, egunotan banatuko duten liburuxkako marrazkiak 3., 5. eta 6. mailetako ikasleek egin dituzte, Fernandezegaz batera.

Gune moreak

Alkateak azpimarratu gura izan du erasorik bako jaiak gura ditzutela. "Argi eta garbi utzi gura dut ez dugula eraso matxistarik onartuko, erasorik bako jaiak gura ditugulako, emakumeak libre eta seguru sentitu gaitezen gura dugulako, espazio publikoak gurea ere badelako", nabarmendu du. Jaiak irauten duten bitartean, Zelaietan eta Zubiondon gune moreak ipiniko dituzte, "informaziorako, harrerarako eta aholkularitzarako", eta, horrez gainera, 747 485 126 telefono zenbakia eskuragarri ipini dute jaiak irauten duten egunetarako.

IMQ Igurco

Adinekoentzako zaintza eta arreta espezializatua

IMQ Igurco Orue	IMQ Igurco Azkuna
94 630 05 50	94 630 99 55
San Miquel de Duda z/g	José Antonio Aguirre 2

ekin
thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es



Tanxugueiras talde galiziarrek kontzertua emango du uztailaren 20an. TANXUGUEIRAS

Zornotzarrak dantzan ipintzeko 23 kontzertu

Izen handiko taldeak zein etxekoak. Zubiondoko eta Zelaietako agertokiak 23 musika talderen kontzertuak hartuko dituzte uztailaren 15etik aurrera. Lehenengo gaualdia Gatibuk, Akerbeltz erromeria taldeak eta Micky abeslariak hasiko dute

Ekaitz Herrera MUSIKA

Zeozerk ondo funtzionatzen badu, eutsi horri; eta ahal bada, hobetu. Badirudi esan hori eurena egin dutela Zornotzan. Izan ere, udalerriko jai nagusiak musika eskaintza handi eta zabal baten ikur izaten dira urtero-urtero, eta aurtengo kontzertu sorta ere edonoren grina asetzeko modukoa izango da. Gatibu, Esne Beltza, Süne, Izaro, J Martina zein Kaotiko. Zerrenda azkar bat egitea nahikoa da Euskal Herriko talderik arrakastatsuenetariko batzuek Zornotzan lur hartuko dutela konturatzeko. Batzuek doinu dantzagarriak eskainiko dituzte, beste batzuek zeozer elektronikoa. Eta izango dira distorsioa era oldarkorra goan eskainiko dutenak ere. Udalak, herritarrekin elkarlanean, 23 emanaldi programatu ditu, eta, bistakoa denez, debalde gozatu ahal izango dira. Zubiondoko eszenatokian izango dira eurretari batzuk, Zelaietako parkean beste hainbat. Horrez gainera, etxeko taldeen eskaintza ere badago. Mikel Urdangarin, Akerbeltz, Supercemalleras eta Seiren taldeek

herrikideak gozaraziko dituzte emanaldi banagaz.

Atzerriko taldeen presentziari dagokionez, hona hemen izen esanguratsu bi: Tanxugueiras eta Micky. Hirukote galiziarra jaietako lehenengo zapatuan taularatuko da eta perkusio eta pandero soinuak oinarri elektronikoekin uztartuko ditu. Micky abeslari espainiarra astelehenean taularatuko da, Zelaietako parkean. Kurioso ere bada, adin eta estetika musikal desberdin bi dituzten artistak izan arren badago eta biak lotzen dituen hariaren bat. Mickyk Espainia ordezkatu zuen Eurovision jaialdiaren 1977ko edizioan, eta Tanxugueiras galiziarrek Espainia ordezkatzeko ahalegina egin zuten 2022ko hautaketa jaialdian.

Berri Txarrak taldearen kantu ezagun batek *Euskaldunak dantzan jartzeko trabak* dio. Baina Zornotzan, ez. Ez berri txarrik, ez trabarik. Hemengo zein hango, xumeago zein arrakastatsuago, zornotzarrek musika eskaintza handi batez gozatu ahal izango dute, ezelako trabarik barik.





Alerta taldea.

"Harro gaude, egiten duguna gustura egiten dugulako"

JABI PEÑAFIEL ALERTA TALDEKO ABESLARIA

Alerta talde beteranoak 'Hartos de escuchar mentiras' lana kaleratu du, bere ibilbideko bosgarrena; taldeari zuzenean idatzita edo bere webgunean erosi daiteke

Aritz Maldonado ABADIÑO

27 urteren ondoren, Alerta taldeak lehenengo eguneko ilusioagaz jarraitzen du lanean. 'Hartos de escuchar mentiras' diskoa kaleratu berritan, ANBOTOk Jabi Peñafiel abeslariagaz berba egin du.

Gogotsu zaudete jendeak abesti berriak entzuteko?

Bai. Egia esateko, argitaratzea nahikoa kostatu zaigun diskoa izan da. Dena atzeratu zaigu, grabatzerakoan konplikazio batzuk izan ditugulako. Pentsa,

hasieran martxoan kaleratzea zen gure asmoa, baina arrazoi bategaitik edo besteagaitik atzeratzen joan da. Hala ere, azkenerako ondo irten zaigu, Abadiño Koba Live jaialdian ekainean eman genuen kontzertuagaz kaleratu dugulako. Denbora askoan egon gara lanean, oso gogotsu geunden kaleratzeke, eta azkenerako lortu dugu. **Doinu aldetik, metal ikutuko hardcorea egiten jarraitzen duzue. Erosoen zaudeten estiloa da?**

Oraintxe bertan, bai. Azken fi-

nean, gorputzak momentuan eskatzen diguna egiten dugu, betetzen gaituena. Metal eta hardcore hori egiten jarraitzen badugu, horregaitik da, horixe delako gustuko duguna. Ez gara egiten denaren edo modan dagoenaren arabera lan egiten duen talde bat. Ez dugu pentsatzen "hau eginez gero edo horra biratuz gero jarraitzaile gehiago izango ditugu". Normalean, gorputzak eskatzen diguna konposatzen dugu. Komertzialagoak izateari garrantzia emango ba-

genio ez genuke metala edo hardcorea egingo. Harro eta pozik gaude, egiten duguna gustura egiten dugulako, eta horregaitik jarraitzen diogu bide horri.

Orain ere zuen kabuz egin duzue grabazioa.

Gaur egun diskoak grabatzea lehen baino errazagoa da, baliabideak eskurago daudelako. Orain urte batzuk, ordenagailu, soinu txartel eta programa informatikoetan inbertitzea erabaki genuen, lokalean grabatu ahal izateko. Orduetik, autoekoizpenerako pausoak eman ditugu, eta aldekoak eta kontrakoak dituen prozesua dela iruditzen zaigu. Denboran luzatu egiten zara, adibidez, ez duzulako orduka ordaindu behar duzun estudioko presio hori, baina zuk gura duzun denbora eskaini diezaiokezu. Taldeak bilatzen duen soinu horretara gehiago hurbildu zaitezke, beraz. Nahasketak eta masterra kanpoan egitera bidaltzen ditugu, hori bai. Azken disko biak horrela egin ditugu; JFT Produccione-segaz errepikatu dugu, aurrekoa ere eurekin egin genuelako.

Iñakiren lehenengo grabazioa izan da. Zelan egokitu da taldera?

Grabatzen hastera gindoazenean heldu zen Iñaki. Gure gustura egiten utzi zigun, prozesua arintze aldera. Musikari eta pertsona itzela da, erraztasunak baino ez dizkiguna eman. Zorte ona izan dugula uste dugu, ez delako erraza izaten horrelako pertsonak topatzea; oso ondo moldatu da beste lauron musikara. Ekarpen handia egiten du, gazteagoa da eta freskura hori ere ematen digu. Oso pozik gaude beragaz. Elkar ondo ezagutzea da hainbeste urtean elkarregaz egoteko gakoetariko bat. Badakigu gutariko bakoitzak nondik joko duen, eta horretara ohitu beharra dago. Oso prozesu erraza izan da.

Kontzertu sorta bat ere eman duzue.

Diskoa lehenago kaleratzeko asmoa genuen, eta, hortaz, lotuta genituen kontzertuei eustea erabaki genuen, diskoa kalerratu barik egon arren. Horrela,

"OSO GOGOTSU GEUNDEN KALERATZEKO, ETA AZKENERAKO LORTU DUGU"

lan berriko abesti berri batzuk entzunda bueltatu ziren entzuleak etxera. Ez da erraza oreka topatzea abesti berrien eta klasikoaren artean. Koba Live aurkeztu genuen diskoa, baina gu ez ginen eguneko protagonistak, eta, beraz, tarteko zeozer eskaintzea erabaki genuen, aurrerapen batzuekin. Uda osteko kontzertuetan, disko berriaren presentzia nabariagoa izango da.

Kontzertu asko duzue lotuta uda osterako?

Oraindino bakarria publikatu dugu, baina lotuta gehiago ditugu. Bizkaian, Katalunian, Kantabriako jaialdi batean egongo gara... eta beste batzuk guztiz lotu barik ditugu, baina ezin dizut gehiago aurreratu.

25. urteurrenko biragaz kontzertu dezente eman duzue.

Lehenengo hamabost urteetan, gutxi gorabehera, oso gutxi irten ginen Euskal Herritik, hainbat arrazoigaitik. Hemen inguruan programaziorako aukera asko zegoen, gaztetxeek topera funtzionatzen zuten, eta ez geneukan beharrezko bidezirik irteteko. Baina azken urteetan ahalegin berezia egiten gabilta gure proiektua kanpora eramateko, eta batez ere penintsulako iparraldean nahikoa kontzertu eman dugu. Eta jendearen erantzuna oso ona izan da. Zorte izan dugu irten garenetan, gehienguan sentsazio onekin bueltatu gara eta. Egon da baten bat ez duena ondo funtzionatu, baina, egia esanda, sentsazioa ona izan da, eta horrek animatu egiten zaitu irtetera edo urrunago joatera. Aurreko biran, Lleidan, Pontevedran eta Madrilen izan gara eta gure ibilbideko kontzerturik onenetarikoak izan dira. Hemendik kanpora joaten garenetan, emaitza oraindino hobea dela esan genezake. Baliteke hemen orain modan beste musika bat dagoelako izatea, edo talde eta kontzertu eskaintza handia dagoelako, baina hortik joaten garenetan erantzuna itzela izaten da, bai. Lau urte daramatzagu Santanderre segidan joaten.

"AZKEN URTEETAN GURE PROIEKTUA KANPORA ERAMATEN AHALEGINTZEN GABILTZA"

Doinu afroak, basamortukoak eta bertakoak Musikairen

MUSIKA Elorrioko Musikaire jaialdian Los 300 taldeak (gaur), Tarwa N-Tiniri laukoteak (zapatuan, uztailak 13) eta Olaia Inziartek (domekan, hilak 14) euren proposamen musikalak aurkeztuko dituzte; emanaldiak Lariz jauregian izango dira, 20:30ean



Los 300.

A. M. ELORRIO

Musikaire jaialdiak bigarren jardunaldia izango du gaurtik aurrera, eta oraingoan musika izango da protagonista bakarra. Hori bai, Elorrio bisitatzen dutenek munduko hainbat doinu

ezagutu dezakete asteburuan. Gaur, afroa, jazz eta doinu latinoak uztartzen dituen Los 300 hirukoteak joko du. *The penguin trip* diskoan, Kuba, Kolonbia, AEB eta Andaluzia bisitatzen dituen bidaia soniko legez defi-

nitzen du taldeak. Zapatukoa, ostera, deserturako bidaia izango da. Handik dator, hain zuzen ere, Tarwa N-Tiniri taldea. Taldearen izenak basamortuko seme-alabak esan gura du *amazigh* hizkuntzan; basamortuko blues doinuak eskaintzen dituzte, eta *amazigh* herriko soinu tradizionalak jazz eta reggae ikutuekin nahasten dituzte.

Inziarte, Nafarroatik

Euskal musikak ere badu bere pisua Musikairen. Joan den astean, Tapia eta Leturia Bandek jo zuen, eta domekan Olaia Inziarte nafarrak emango du kontzertua. Gaztea izan arren, ibilbide oparoa darama. 2022an *Lehenko lepotik burua* lehenengo lan luzea kaleratu zuenetik, dozenaka zuzeneko eman ditu hileotan, eta bere lekua egin du euskal musikagintzaren panoraman. Oraintsu, *Lagun II* singlea kaleratu du. Hirukote formatuan emango du kontzertua.



Jon Lopez eta Martxel Rodriguez. IRANTZU PASTOR

Dantza protagonista izango da Durangoko Uda Giron

DANTZA Led Silhouette eta Matxalen Bilbao konpainiek dantza garaikide ikuskizunak egingo dituzte zapatuan

A. M. DURANGO


Dantza garaikide eskaintza bikoitza egongo da Durangon zapatuan, hilak 13. Led Silhouette konpainia lesakarrak *Los Perros* lana aurkeztuko du. Aro digitaletan jaiotako gizon bi dira Jon Lopez eta Martxel Rodriguez. Gizatasuna galtzen ari denean, pasioz dantza egiten erantzuten diote bizi duten garai ezegonkorri. "Besarkatuta dauden gizon bi gara. Gizon bi dena amaitu bitartean dantzatzen ari direnak, guztia berriro hasten dena arte", azaldu dute konpainiatik. Dantza garaikidearen eszena

europarrean aitzindaria den Marcos Moraurena da zuzendari artistikoa.

Hizkuntza propioa

Matxalen Bilbao dantzari bilbotarrak hamarkada bi baino gehiago daramatza sortzen eta bere estiloa eta diskurtsoa garatzen eta jendarteratzen. *Fugas* lanean, adibidez, norbanakoen eta talde harremanen arteko hausnarketa planteatzen du.

Dantza emanaldi biak Ezkurdin izango dira, 20:00etan (euria eginez gero, Landako Gunean egingo dituzte).



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Puntu. Eta aparte

Ez al zaizue iruditzen denbora kontrolaezin bihurtzen ari zaigula? Esan gura dut, jakin barik lehengo sasoieta zelari bizi ziren (asko entzun dugu baina tira azken batean esanak eta eginak distortsionatzen maisu da gizakia) iruditzen zait orain ez dugula orduan egiten ziren irteerak asteburu pasak eta abar luzeko zerrenda hori egiteko astirik, areago, beharbada ez dugula geure buruari begiratzeko astirik, ez dugula edo tira ez digutela uzten astirik. Noizean behin buruak eztanda egin ostean esaten diogu "atsedena behar duzu" baina ohartu orduko berriz zaude martxan, berriz zaude agenda puzten eta ez husten, hondartzara joan eta handik ere zure lankide bati mesedea egiten "garrantzitsua da ta" aitzakiapean eta itsas lerrora baino gehiago begiratzen diozu mugikorrari eguzkiak edo zure egonezinek eta baldarkeriek pantailan marrastu dioten lerro urratu beltz horri eta uste duzu "mugikorra zahartzen" ari zaizula eta apur bat larritu

zara mugikor berrian berriz dena konfiguratu behar duzulako eta hori pentsatu bitartean zure Calendar-a deskonfiguratu da eta ahaztu egin zaizu noiz duzun laneko bilera entregatu beharreko testuaren epea eta non utzi duzun krema erretzen hasi zarelako ez bakarrik azaletik baizik barrutik ere bai eta ohartu orduko berriz ahaztu duzu zure egunerokoan komak eta puntuak jartzea uste duzulako eginez gero denbora galtzen ari zarela eta orduan buruak berriro "BUM!".

Askok gustatzen zaigu testuari pare bat *enter* sakatzea, gauzak ondo antolatuta ditugula adierazteko geure

"BEHARRAREN BEHARREZ EZ GARA GAI GURE EGUNEROKOAN 'ENTER' HORI SAKATZEKO"

buruari. Aldiz, gero, beharraren beharrez ez gara gai gure egunerokoan *enter* hori sakatzeko. Iritsi da momentua non, telelanari(ren) esker (erruz), ezin dugun gure aisia betebeharretik aldendu. Orain gutxira arte gutxi ziren hori jasaten zutenak, asko pertsonaia edo langile publikoak zirenak. Gaur egun biltegi batean lanean ari denak adi egon behar du laneko dei bat jaso behar duen kasurako. Mendira txangoa egin gura duenak ere estaldurarik badagoen ala ez kezka izango du. Hasi. Gaitetzen. Komak, puntuak. Jartzen. Bestela, testu honetan legez, arnasarik barik geratuko gara, eta ordainduko dutenak, gure buruaz gain, gure ingurukoak izango dira. Eta hor helduko da, nahigabeko puntu eta aparte bat.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

UZTAILAK 12

ABADIÑO Sankristobalak

Garagardo dastatzea, 19:30ean.
Parrillada, 20:30ean.
Erromintxelak + Garratz + Basque Street Boys, 22:00etan.
Mendiolan.

DURANGO Erakusketa

Ansorenaren Funtsa: Iraganeko gure landa eremua. Durangoko XX. mende hasieratik 60ko hamarkadara arteko begirada.
Arte eta Historia Museoa, uztailaren 14ra bitartean.

ELORRIO Kontzertua

Los 300 taldea.
Lariz Jauregian, 20:30ean.

MAÑARIA Erakusketa

'Eskeletoak, kraneoak eta masailezurak'.
Hontza museoa.

ZALDIBAR Proiekzioa

Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa.
Liburutegi zaharrean, 18:30ean.

ZORNOTZA Erakusketa

'Pertsonak'. AIDAE elkartearen 30 urteko ibilbidea.
Zelaieta zentroko 1. solairuan.

ZORNOTZA Erakusketa

'Basques in Australia' erakusketa, Australiako euskal diasporari buruz.
Zelaieta zentroan, uztailaren 19ra bitartean.

UZTAILAK 13

ABADIÑO Sankristobalak

Herri bazkaria, 14:00etan.
Eixu artisautza elkartearen azoka, arratsaldean.
Tortilla txapelketa, 19:00etan.
Luhartz, 22:00etan.
Mendiolan.

ATXONDO Errogatiba

Errogatiba Santa Barbara ermitara. Larranon hamaiketako. Santa Barbaran meza, 12:00etan. Makila txapelketa, 14:00etan. Bazkaria, Aitz Azpi elkartearen.
Axpen, 08:30ean.

ELORRIO Bisita gidatua

'Basilikaren barrenak'.
Turismo Bulegoan, 11:00etan.

DURANGO Dantza garaikidea

'Fugas' (Matxalen Bilbao) eta 'Los Perros' (Led Silhouette) ikuskizunak.
Ezkurdin (euria bada Landako Gunean), 20:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Tarwa N-Tiniri.
Lariz Jauregian, 20:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera

Murgiara bizikleta irteera, lurreta Txirindulari Elkarteak antolatuta.
lurretan, 08:00etan.

ZALDIBAR Mendi irteera

Zaldibarko XLV. Mendi Martxa Plazatik, 07:00etan.

UZTAILAK 14

ABADIÑO Sankristobalak

Alluitz dantza taldea, 12:00etan. Ugasio eta bolo txapelketa, 13:00etan. Errifen zozketa eta Donien Atxa botatzea, 14:00etan.
Mendiolan.

ELORRIO Bisita gidatua

'Gurutzeen bidea'.
San Agustín auzoan, 11:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Olaia Inziarte.
Lariz Jauregian, 20:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera

Lauroetara bizikleta irteera, lurreta Txirindulari elkarteak antolatuta.
lurretan, 08:00etan.

OIZ MENDIA San Kristobal Eguna

Musika: Obieta eta semea. Meza, 11:30ean. Oizko ermitara igoera bertikala, 12:30ean. Sari banaketa, 13:30ean. Txopitturri elkartearen zozketa.
Oiz mendian.

UZTAILAK 18

ATXONDO Bakarrizketa

'Bonba bat naiz' (Bea Larrañaga).
Apatako plazan, 20:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Pelma & Luis taldea.
Portalekua tabernan, 18:30ean.

ZALDIBAR Santa Marina

Omenaldia auzoko nagusiei, 12:30ean. Ondoren, salda. Taberna zabalduko da, 18:00etan. Jaiak iragartzeko txaplogua eta Donien Atxa altxatzea, 19:00etan. Bolo txapelketa, 20:00etan. Euskal Labeldun Basatxarri azpizun pintxo potea.
Goierri auzoan.

UZTAILAK 19

ELORRIO Kontzertua

Son Rompe Pera.
Elizpean, 22:30ean.

MAÑARIA Kontzertua

D'Capricho.
Plazan, 20:00etan.

ZALDIBAR Santa marina

Sardina jana, 20:00etan. Bolatokia martxan, 21:00etan. VIII. Rock jaialdia, 21:00etan.
Goierri auzoan.

UZTAILAK 20

DURANGO Bisita gidatua

'Durango historian zehar'. Turismo Bulegoak eta Gerediaga elkarteak antolatuta. Izena eman behar da.
Turismo Bulegoan.

DURANGO Musika

Leioa Kantika korala.
Andra Mariko elizpean, 20:00etan.

ELORRIO Bisita gidatua

'Los secretos de la basilica'. Izena eman behar da.
Turismo Bulegoan, 11:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Hit La Rosa.
Elizpean, 22:30ean.

ZALDIBAR Santa marina

Bakailao eta paella txapelketak, 11:30ean (izen ematea, 12:30ean). Mus eta briska txapelketak, 17:00etan. Antzerkia, 18:00etan. Buruhandiak, 19:30ean. Erromeria, 21:00etan. Bolatokia martxan, 21:00etan. Bolo txapelketa, 23:00etan.
Goierri auzoan.

ZINEMA

ABADIÑO (AIRE ZABALEAN)**MUNTSARATZ DORRETxea**

La boda de Rosa
Eguaztena 17: 22:00.
(Euria bada, probalekuan)

DURANGO**ZUGAZA ZINEMA**

Fly me to the moon
barikua 12: 18:00, 20:00.
zapateria 13: 18:00, 20:45.
domeka 14: 17:00, 19:30
astelehena 15: 17:45, 20:15.
martitzena 16: 17:45, 20:15
eguzatena 17: 19:00

Strangers. Capítulo 1

barikua 12: 21:00.
zapateria 13: 19:30 / 21:30.
domeka 14: 19:30.
astelehena 15: 20:15.
martitzena 16: 20:15
eguzatena 17: 19:00



El bus del la vida

El bus de la vida

barikua 12: 21:00.
zapateria 13: 19:30, 21:30.
domeka 14: 19:30.
astelehena 15: 20:15
martitzena 16: 20:15
eguzatena 17: 19:00

Gru 4. Mi villano favorito

barikua 12: 18:30.
zapateria 13: 17:00.
domeka 14: 17:00.
astelehena 15: 17:45
martitzena 16: 17:45

Del Revés 2

barikua 12: 18:00.
zapateria 13: 17:00.
domeka 14: 17:00.
astelehena 15: 17:45
martitzena 16: 17:45

ZORNOTZA**ZORNOTZA ARETOA****Mala persona**

barikua 12: 20:00.
zapateria 13: 20:00.
domeka 14: 20:00.

Lassie

zapateria 13: 17:00.
domeka 14: 17:00.



Mala persona



BARSANTI KONPAINIA.

BERRIZ Kale antzerkia

'Lanean jarraitu 75'
Uztailak 18, eguena, Olakueta plazan, 17:00etan.

Barsanti konpainiak 'Lanean jarraitu 75' plazaratuko du, Berriz Kulturaz Blai egitarauaren eskutik. Euria bada, eskolako patioan.



Unai Etxeita Herrera, Gaizka Barrainkua Besoitoagoena eta Oinatz Urtiaga Abendibar, Garaiko plazan.

"Aurten proba laburra ere badago, abanikoa zabaltzeko"

UNAI ETXEITA, GAIZKA BARRAINKUA ETA OINATZ URTIAGA MENDI LASTERKETA Garaiko Asto Trailak laugarren aldia egingo du uztailaren 20ko zapatuan. Mendi martxaz eta lasterketa luzeaz gainera, lasterketa laburra ere antolatu dute aurten

Joseba Derteano GARAI

Astebete falta da Asto Trailen laugarren edizioa jokatzeko, eta probako antolatzaileetarikoa diren Unai Etxeitak, Gaizka Barrainkuak eta Oinatz Urtiagak nobedadeak kontatu dituzte. Lasterketa laburra (16,5 km) ere antolatu dutela da berrikuntza bat. Lasterketa luzean (28 km), Oizko gailurreria mantendu dute ibilbidean, iaz hasitako bideari eutsiz. Mendiaz modu lasaiagoan gozatu gura dutenek mendi martxa dute aukeran.

Asto Trailak laugarren aldia egingo du aurten. Herrian sustraituta dagoen ekimena dela esan genezake?

Gaizka Barrainkua: Sustraituta baino gehiago, sustraitzeko bidean gaudela esango nuke. Laugarren aldia da, baina ez dira segidan izan: 2016an, 2018an eta 2023an izan dira aurrekoak. Beraz, aurtengoa jarraian egiten den bigarrena da. Aurrerantzean urtero egitea da gure asmoa.

Lasterketa laburra nobedadea izango da.

Unai Etxeita: Bai, aurten pro-

ba laburra ere badago, abanikoa zabaltzeko. Iaz parte hartzaileen eskari bat izan zen. Uztail amaieran, jendeak buruan oporrak dituela 28 kilometroko proba bat egitea... Horrelako komentarioak entzun genituen, eta horregaitik antolatu dugu laburragoa ere. Martxako ibilbide bera du. Gure harridurarako, oraingo beste proba bietan baino jende gehiagok eman du laburrean. Joera orokorra dirudi. Inguruko beste lasterketa batzuei erreparatuta, Mallabikoa eta

Berrizkoa esaterako, laburrak jende gehiago erakartzen du. Azken batean, egingarriagoa da, esperientzia gehiagokoek nahiz gutxiagokoek egin dezakete.

Zer ibilbide du?

Oinatz Urtiaga: Martxako ibilbide bera du. Hasieran, korrikalariak Sarria inguruko uren kanalen ondotik ibiliko dira. Zonalde polita da. Gero, Sarri-mendira igoko dira. Handik Urdaiara bajatu ziren iaz. Aurten, beheraino heldu aurretik, beste bide bat hartuko dute eta handik Oizko Etxebarrieta igoko dute. Ondoren, Askako eta Jandolamendi mendiak igoko dituzte. Handik Garaia bajatuko dira.

Ibilbide luzean, iaz lehenengoz sartu zenuten Oizko gailurreria osoa, eta aurten mantendu egin duzue. Harrera ona izan zuen?

U.E.: Bai, oso polita geratu zen. Eguraldi ona egin zuen, gainera. Ikuspegi ederrak daude eta paraje zoragarria da. Aurten ez dago egunean bertan izena emateko aukerarik. Zergaitik?

G.B.: Gutxi gaude antolakuntzan, eta logistika aldetik buruhauste asko egoten da lasterketa egunean. Iaz 300 parte hartzaile batu ziren eta kamisetak eta

"URKIOLA KOPA TRAIL OSO IDEIA ONA DA. DURANGALDE MAILAKO ERE POLITA LITZATEKE"

dortsalak banatu behar zaizkie denei. Horri azken orduko izen-ematea gehituz gero, larri ibili gintezke. Beraz, aurten izen-ematea Interneten bakarrik egin daiteke, www.buscametas.com webgunean, uztailaren 18ra arte.

Zelako laguntza duzue Asto Trail antolatzeko?

O.U.: Guztira, 40 bat boluntario behar dira, eta, zorionez, badugu laguntasuna. Garaiko Nagusien elkarteak asko inplikatzeko dira eta eskerrak eman gura dizkiet. Trumoitte elkarteoen laguntza eta udalaren babes ere baditugu. Horrez gainera, egunotan ibilbideko bideak garbitzen aritu gara hainbat pertsonaren artean. Jende asko dabil laguntzen.

Asto Trailen inguruan beste ezer gehitu gura duzu?

G.B.: Aurten, oparien zozketak sari banaketaren ondoren egingo ditugu, jendea bertan gertatzeko eta plaza inguruko giroari eusteko. Baita gure babesleei ikusgarritasun handiagoa emateko ere. Sari asko eta politak ditugu: asteburu bat landetxean, afari bat, arropa... Horrez gainera, bezperan, bariku iluntzean, dortsalak jasotzeko aukera dago. Eta egun horretan bertan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileen Ztandap bakarriketa saioa egongo da Elizaberrin, 19:00etan, Garaiko Trumoitte elkarteak antolatuta.

Joan zen astean, Urkiola Trail Kopa aurkeztu zuten. Oraingo, Sorginen Lasterketa, Mañaritik Atxetara eta Aramotz mendi lasterketa sartzen dira Kopan, baina antolatzaileek ez diote aterik itxi etorkizunean Durangalde osora zabaltzeari. Zuek zabalik duzue ate hori?

G.B.: Bai, guztiz zabalik, gainera. Begira, Berrizko Amaraune probakoak lagunak ditut eta orain denbora bat horrelako zeozer komentatu nien. Goierriko Kopa eta Urdaibaiko Kopa dauden moduan, hemen ere horrelako zeozer egin zitekeela berbetan aritu ginen. Izan ere, Durangaldeko herririk gehienetan daude mendi lasterketak. Kontua hor geratu zen, eta Urkiola Trail Kopako albistea irakurri nuenen, "begira, aurreratu egin zaizkit" pentsatu nuen. Oso ideia ona da eta dena ondo joatea opa diet. Durangalde mailako Kopa ere polita litzateke.

Neska juniorrik onenak, Bizkaikoloreak proban

TXIRRINDULARITZA UCI mailako Bizkaikoloreak lasterketak bosgarren aldia egingo du uztaillaren 20an eta 21ean. Lau selekziok parte hartuko dute. Zapatuko etapa Abadiñon hasi eta amaituko da; domekakoak, lurretan hasi eta Goiurian du amaiera

Joseba Derteano DURANGALDEA

Junior mailako txirrindularirik onenak Durangaldeko errepideetan ibiliko dira uztaillaren 20tik 21erako asteburuan, Bizkaikoloreak probaren barruan.

Etapak bik osatzen dute lasterketa, eta ibilbidea Durangaldeko errepideetatik da. Gutxi-asko, urterik urte Gallanda elkarteak antolatzaileek aldatu egiten dute ibilbidea, eta aurtengoak ere badiu bere berezitasunak; batez ere, bigarren etaparen amaieran. Lehenengo etapa, uztaillaren 20koa, 16:30ean hasiko da, Abadiñon. Ziklistek hiru bider egingo dute Miotako itzulia (70 km), Abadiñon, Zelaietan, helmugaratu aurretik. Domekako etapa 11:00etan hasiko da, lurretan, eta aurreko eguneko baina gogorragoa eta bost kilometro luzeagoa izango da. Etapako lehenengo zatia lau da. Erlextetarako joan-etorria egingo dute, baina azken txanpan hiru mendate kateatuko dituzte: San



Antolatzaile, babesle eta ziklistak, lurretako udaletxe aurreko aurkezpenean.

Trokaz, Zengotita eta Goiuria. Azken mendate horretan egongo da helmuga, Ikuspegi jate-txearen ondoan. Beraz, aurtengo aldia mendatean amaituko da eta zaleentzako pizgarri bat izan daiteke.

UCI mailako lasterketa denez, talde juniorrik onenak etorriko dira; 28 talde, guztira. Euretari lau selekzioak dira: Frantziako, Alemaniako, Norvegiako eta Belgikako selekzioak, hain zuzen ere. Taldeei dagokienez,

Erresuma Batuko hiru talde, eta Ameriketako Estatu Batuetako, Kanadako eta Italiako talde bana etorriko dira, besteak beste. Normala den moduan, selekzioak izango dira talderik indartsuenak, herrialde bakoitzeko txirrindularirik onenak batzen dituztelako.

Faborito nagusiak

Bizkaikoloreak irabazteko faborito nagusien artean, iaz podiumean izan ziren gazte bi daude: Celia Gery frantziarra eta Cat Ferguson britainiarra. Gery goi mailan dabil aurtun: Flandriako Itzulia irabazi du eta Frantziako nahiz Europako txapelduna da, beste lorpen batzuen artean. Ferguson UCIn rankingeko liderra, Erresuma Batuko txapelduna eta munduko txapeldunordea da. Txirrindulari biek behin baino gehiagotan neurtu dituzte indarrak aurtun. Flandriako Itzulia, esaterako, Gery esprintean nagusi zitaion Ferguson.

Euren atzetik izen gehiago nabarmendu daitezke, tartean euskaldunak. Paula Ostiz nafarra da eurretari bat. Joan zen asteburuan, Espainiako errepideko eta mendiko txapelketak irabazi zituen Avilesen (Asturias). Eskualdeko ziklistei dagokienez, Laida Hierro durangarra arituko da. Avilesen brontzeko domina irabazi zuen Espainiako errepideko txapelketan.

Oizera igoera bertikala, San Kristobal jaietan

MENDI LASTERKETA Oizko ermitako jaien harira, igoera bertikala antolatu dute, lehenengoz

J.D. BERRIZ

Oizko ermitaren inguruan San Kristobal jaiak ospatuko dituzte domekan, Munitibarko Txopiturri Guraso Elkarteak antolatuta. Ohiko jaiegunaren barruan, ekintza berri bat antolatu dute aurtengo: Oiz Ermitara Igoera Bertikala mendi lasterketa. Proba hau igoera herrikoien liga osatzen duten zortzi lasterketatariko bat da.

11:30eko meza ostean hasiko da igoera bertikala, 12:30ean. Arratsaldean zehar, guraso elkartearen zozketa egingo dute. Obietak eta semeak musikaz girotuko dute egun osoa. Txosna bat ere egongo da egun osoan, eta ogitartekoak eta pintxoak ere salduko dituzte bertan.

"Eskualdeko lagun guztiei, mendi lasterketen jarraitzaileei zein mendizale guztiei deia zabaldu gura diegu etorri daitezen", adierazi dute guraso elkarteak kideek ohar batean.



JOKALDIA

AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN TRINKETA

Euskal pilota selekzioa

Euskal pilota selekzioaren inguruko eztabaida dagoenetik, beti entzun izan dut izugarritzko kontraesana dela "gurea" den kirol batean euskal pilota selekzioak talde moduan parte hartu ezin ahal izatea. Eta hau horrela izan eta esanda, hala da. Baina honek hausnarketarako parada sortu dit eta galdera batzuk sorrarazi. Besteak beste: "gure" horrek "noren"-a esan nahi du? Badakigu jatorria zein den eta gure kulturaren zeinen errotuta dagoen euskal pilota... baina Euskal Herrian bertan bada pilota maite ez duenik, eta are gehiago, ikusi izan dut Mexikon, Bolivian, Txilen eta beste herrialde batzuetan euskal pilota guk beste maite duenik ere, eta zergaitik ez da izango "horiena" ere euskal pilota? Gauzak horrela, bi alderdi desberdinduko nituzke arlo honetan: batetik, euskal pilota maite dutenak (euskaldun izan edota ez izan, eta ez naiz ni hemen hasiko kirol honekiko bakoitzak duen maitasuna epaitzen), eta bestetik, euskal pilota selekzioa maite eta honekin

batera ofizial izatera bultzatzen dutenak. Eta azken honekin lotuta, aipatu edota hobeto esanda, goraiatu beharra daukat orain bi aste (ekainaren 29an) euskal pilota eta euskal selekzioa maite duten hainbat pertsonak egin zuten ekitaldia Hendaia (Lapurdi) Ugarte Beltzenia pilotalekuan. Euskal selekzio ofizialaren aldarria egin zuten eta frantziar zein espainiar pilota selekzioei uko egin zioten hainbat pilotariri babesa adierazi bide batez. Euskal Herriko Euskal Pilota Selekzioaren Aldeko Mugimenduak deitutako ekitaldian, selekzio horiekin aritzeari uko egindako hainbat pilotari eta pilotari ohi batu zen, besteak beste.

"IKUSI IZAN DUT MEXIKON, BOLIVIAN ZEIN TXILEN EUSKAL PILOTA GUK BESTE MAITE DUENIK ERE"

"GUREA' IZATEAK EZIN DU ARGUMENTU SOLIDO BAT IZAN OFIZIALTASUNERAKO"

Amaitzeko, eta esandakoaren ondorio modura, esan nahi dudana da "gurea" izateak edota gurean errotuta dagoen kirola izateak ezin duela ofizialtasunerako argumentu solido bat izan, beste kirol gehienak ez baitira "gureak", eta hauek ere Euskal selekzioaren ofizialtasunaren bidean ezin ditugu gutxietsi.

"Gure" horren gainetik beste gauza batzuek egon behar dutela deritzot; eta ez dakit euskal pilota gurea zenbaterainokoa den, baina argi daukadana da Hendaian batu zen pilotari eta pilotazalea bai dela "neurea", eta hauek bai maite dituztela Euskal pilota zein GURE EUSKAL PILOTA SELEKZIOA.



Dantzarien eta herritarren biribilketa, jaiak hasteko ekitaldian.



Herri Kirolak Zaldua plazan. ZALDIBARKO UDALA

Herritarren eta elkarteen auzolanetik sorturiko lau jaiegun arrakastatsu

Zaldibarko Udalak jaietako ekitaldietan egondako giro ona eta errespetua nabarmendu ditu, eta eskerrak eman dizkie antolakuntza lanetan ibili diren herritarrei eta elkarteei. "Zuek barik hau ez zen posible izango", esan du alkateak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Pronostikoak egitea beti izaten da labainkorra, baina jaien hasiera ekitaldi jendetsuak argi utzi zuen ondoren etorriko zen dena ere bide onetik joango zela. Zaldibartarrek herriko jai nagusiak agurtu dituzte eta udalari balantzea egiteko ordua heldu zaio. Giro ona, arrakasta eta errespetua. Berba horiekin deskribatu dute aurtengo jaietako balantzea, eta azpimarra berezia egin diete ekitaldi bakoitza antolatzeaz arduratu diren norbanako zein elkarteei. "Beste behin ere argi geratu da herritarren arteko auzolana ezinbesteko tresna dela jaien arrakasta bermatzeko. Zuen elkarlanik barik hau ez zen posible izango. Eskerririk asko denoi. Edozelan ere, hobetu beharreko aspektu batzuk ere identifikatu ditugu. Horiek aintzat hartu eta lanean jarraituko

dugu datorren urteko jaiak ere arrakastatsuak izan daitezela", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak.

Sariugarteren bertsoa

Afari-merienda herrikoia, urtero-urtero jaietan hutsik egiten ez duen bertso saioa, Olazarko pilota partidu klasikoak, umeen (eta ez hain umeen) gozamenerako apar-festa... Herritarrek ez diote muzinik egin jaietako ekitaldi bakoitzari. Hori bai, ekitaldirik jendetsuenetarikoa bat jaiak hasteko ekitaldia bera izan zen. Eta, zelan ez, Mendilibarri egi-

niko omenaldiak piztu zuen ikusminaren zatirik handienetarikoa bat. Garikoitz Sariugarte bertsolari zaldibartarrak honako bertso hau eskaini zion herrikidea duen futbol entrenatzaileari: "Valladolid, Osasuna, Eibar, Alaves, Athletic / Sevilla, Olympiakos eta Levante bestetik / Arratia, Lanzarote ta aurrera euren aurretik / Zaldibar famatu egin dozu Europa aldetik / Grezian sartu zaitue zu Olimpo-ko atetik / Europako titulu bi bata bestean atzetik / Zorionak ta milesker zaldibartarren partetik". Bertsoa entzun berrian, hunkidura ezin ezkatatuta egon zen bat baino gehiago.

Amaitu dira jai nagusiak, baina datorren asteburuan zer ospatu gehiago izango dute udalerrian. Uztailaren 18tik 21era jaiak izango dituzte Goierrri auzoan.

"ELKARLANIK BARIK HAU EZ ZEN POSIBLE IZANGO. ESKERRIK ASKO DENOI!"



Gazteriak musika eta zalaparta kaleratu ditu jaietan.



Arrastaka ibili arren, kuadrillen arteko erronkek arrakasta izan dute. LUCIA MERUELO



Umeek freskatu ederra hartu zuten apar festan. ZALDIBARKO UDALA



Ezkerrean, Jose Luis Mendilibar, Gaztetxeko kideak eta udal ordezkariak. Eskuman, Mendilibar Zaldia Kirol Elkarteko kideekin.



Umeak hankaz gora ibili dira.



Lehia estua kuadrillen erronkan. L.M.



Barsanti konpainiak 'LJ75' antzezlanaren taularatu du jaietan. ZALDIBARKO UDALA.



Bertsolariek ez zuten jaietako hitzordura hutsik egin. ZALDIBARKO UDALA



Eskolako instalazioak jolas parke bihurtu ziren domekan. ZALDIBARKO UDALA



Herriko dantzarien saioa, gaztetxekoek txaplogua jaurti baino lehenago.

GUARDIAKO BOTIKAK

DURANGO 24 ORDUZ

Barikua, 12 Mugika, Andra Mari, 9

Zapatua, 13 Balentziaga, Ezkurdi plaza, 8

Domeka, 14 Bazan, Uribarri, 5

Astelehena, 15 Irigoien, Bixente Kapanaga, 3

Martitzena, 16 Sarria, Sasikoa, 17

Eguaztena, 17 Unamunzaga, Muruetatorre, 8

Eguena, 18 Campillo, Montevideo etorbidea, 24

ZORNOTZA 24 ORDUZ

Barikua, 12 Goiria, Sabino Arana, 6

Zapatua, 13 Melero, San Pedro, 31

Domeka, 14 Melero, San Pedro, 31

Astelehena, 15 Melero, San Pedro, 31

Martitzena, 16 Melero, San Pedro, 31

Eguaztena, 17 Melero, San Pedro, 31

Eguena, 18 Melero, San Pedro 31 - Zornotza

DURANGALDEA 22:00 ARTE

Barikua, 12 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

Zapatua, 13 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

Domeka, 14 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

Astelehena, 15 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

Martitzena, 16 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

Eguaztena, 17 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

Eguena, 18 Zornotza: Sarasketa, Luis Urrengoetxea, 5

ZORION AGURRAK

Zorionak, Peio (886. alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.



ABADIÑO

Oihane Etxebarria

Uztailaren 17an, 14 urte. Zorionak, preziosak! Osaba Yosua eta izeko Carmenen partez.



ABADIÑO

Ainhoa Urien

Biiiiitx!! Zer pentsetan zifiun, zorion mezu honetaz librauko zinela? Sagastan zein Hernanin egon, uztailan 18an ondo pasau zure 29. urteguneta ta mosu pilo bat!

**GOZATU GOZOTEGIA**Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

InternetAnboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.


Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoaMezua bidali zorionak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.**Ordezkaritzak**

Etor zaitez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA


EUSKAL HERRIA




Barikua, 12

DURANGALDEA

Zapatua, 13



Domeka, 14



bigkaikoloreak
2023ko uztaila

07/20 Abadiño· Abadiño 70,1 Km
07/21 Iurreta· Iurreta 76,8 Km

UCI

Iurreta Abadiño Bizkala FURESA

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1º LANBROA Pello Lizarralde (Ereñ) 7€

2º MAITASUN KAPITALA Kemele Jalo (Elkar) 2€

3º FRANCISCO PASQUALEREN BOSCARREN ARIMA Ural Eorriaga (Susa) 5€

Osasun gida

Podologia
PSE: 214/06




BINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

Optometria
PSE: 162/13



NAIA ZABALA
ALZMENDI
11587 hel. zk.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNeko LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

Proktologia
PSE: 16/22



prōktós.clinic

Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia (MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

Fisioterapia
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea beheko eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16




pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Odontologia
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PAOI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, beheko - 48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Naturopatia eta Homeopatia

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, beheko - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



Psikologia



gure
Zure bidelagun

Haur, nerabe eta helduentzat

Bitote-arazoak, artoiletaria eta estresa, depresioa, eskola eta ikasketen zailtasunak, arreta gaitziera, familia-arazoak, portaera-arazoak, estresazko kognitiboa, orainena, bizitza, arazoak logika, elikadura-portaera, diskalkulia eta dialektika.

623 173 181 - 613 038 933
Andra mari 16 ID Durango

Odontologia
PSE: 26/22



viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko Hortz Klinikak Durangoan

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulegia:
Astelehenetik ostirala: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Laruntza: hizordua hartzen

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Astasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com



Uda, euskahaldun on!

Dagoeneko sartu gara udan. Oporrak, jaiak, hondartzetako algarak... Ingurumari horretan, entzun ariketa bat egitea proposatzen dizuet: zein da gehien entzuten duzuen hizkuntza? Pozik, erantzuna euskara balitz. Izan ere, inkesten emaitzen arabera, erabilera ez da hobetu, eta zenbaitetan atzera egin du. Euskarak inoizko egoera onena du, jendartea euskara sustatzearen alde dago, baina zerbaitetan kale egiten dugu.

Euskararen alde gaude, baina ez dugu euskaraz berba egiten. Euskaraz bizi gura dugun arren, ez dugu euskara kultura kontsumitzen. Umeei esaten diegu euskaraz aritzeko, eta buelta erdia eman orduko, ondoko euskaldunarekin gaztelaniz dihardugu.

Ez gara, bada, geure burua engainatzen ari? Euskararen alde egoteak egunerokotasunean erabiltzea dakar. Euskaraz bizi gura izateak lehen hitza euskaraz botatzea suposatzen du. Gaztelaniz eroso bizi garela uste dut. Oso barneratuta dugu euskara ez dagoela arriskuan, baina ez da horrela: euskarak, hizkuntza gutxitua den heinean, ez du bermatuta etorkizuna. Are zailagoa da bizi-iraupena globalizazio garai hauetan. Beraz, ari gaitzen euskaraz ahal dugun guztietan. Izan dadila euskara nagusi uda honetako doinuen artean. Gure belarriek eta gure hizkuntzak eskertuko dute eta!

AKUILUA

"Kontsumo ohituretan eragitea dugu helburu"

URTZA URIARTE OTAZUA IRAUNKOR ELKARTEKO KIDEA

Iraunkor elkarte tokiko ekonomia iraunkorra bultzatzeko jaio zen. Merkaturatze kanpaina hasi dute, elkarte ezagutarazteko eta kontsumo ohiturak aldatzeko

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Iraunkor 2016an jaio zen, tokiko ekonomia zirkularra eta iraunkorra bultzatzeko eta produktu ekologikoak lehenetsita. Gaur egun 60 bazkide dira, ekoizleak eta kontsumitzaileak. Urtza Uriarteren (Etxano, 1984) ustez, kontsumo ohituretan eragitea ezinbestekoa da osasuntsu eta modu jasangarrian bizitzeko.

Elkarteak 17 bazkidegaz hasi zuen bidea. Positiboa da egindako lana?

Bai, baina astiro doa. Gutxienez 200 bazkide izan beharko ginateke. Horretarako hasi dugu merkaturatze kanpaina. Badaude oraindik ezagutzen ez gaituztenak, eta ezagutzen gaituztenariko batzuek ez dute argi zein den gure erudia. Elkarte ezaguraztea eta kontsumo ohituretan eragitea dugu helburu.

Erronka handia da kontsumo ohiturak aldatzea.

Bai, eta horixe da gure trabarik handienariko bat. Hortxe dago giltza. Funtzionatzeko modua oso erraza dela erakutsi gura dugu, eta jendea gure ereduagaz bat egitera animatu. Asteburuetan ipintzen dugu eskaintza, eta eskaria Internetez edo Whatsapez egin ondoren, lokalean banatzen dugu. Erregulariki kontsumitzen dugu 20 bat bazkide gara.



"BERTAKOA, OSASUNGARRIA ETA KOOPERATIBOA DEN PRODUKTUA KONTSUMITU BEHAR DA"

Bazkideak gehitzea ezinbestekoa da Iraunkorren ereduari eusteko?

Ia ezinbestekoa. Gastuari aurre egiteko, erosketa bolumen handiagoa behar dugu, eta bazkide kontsumitzaile gehiago. Eskaintza handituta ere, bazkideok gehiago erosteko aukera izango genuke, baina bertoko ekoizpen

ekologikoa mugatua da. Beraz, kontsumo eredu honi eutsi gura badiogu, elikagai komunitatea landu behar da, esparru bitan. Gutxienez erosketa bolumena behar dugu gastuak kitatzeko; orain, ez dugu lortzen. Osasuntsu bizitzeko, bertakoa, osasungarria eta kooperatiboa den produktua kontsumitu behar dugu, horretaz kontzientziatu behar dugu.

Produktuen banatze sistema ere eramaten duzue Bizkaian.

Bai, eredu berri bat sortzen gabilta. Hartara, gure kontsumo taldea hornitzeaz gainera, Bizkaiko beste hainbat kontsumo talde eta ekoizle txiki beste produktu batzuek hornitzen ditugu, euren eskaintza osatzeko aukera emanez. Eredu agroekologikoan landuriko produkturik ekologikoena eskaintzeko sarea ehundu gura dugu: eredu osasungarri eta kooperatiboan oinarrituriko banatze sistema alternatiboa. Elikagai komunitatea indartzeko balio dezake, eta sistema bidegarri egiteko.

Zer dago ekologikoaren atzean?

Zigilu Ekologikoak eredu ekonomikoa jasangarria izan behar dela zehazten du. Baina eztabaida handia dago, kontraesanak daude. Japoniatik datorren produktu ekologikoa jasangarria da? Eredu ekonomikoa jasangarria ez ezik etikoa ere izan behar dela dio agroekologiak. Eta etekin ekonomikoa lehenesten duten ekoizle ekologikoak ere badaude. Ekologikoa kontsumitu behar da, bai, baina oso garrantzitsua deritzogu kontsumo taldeak hornitzeari, zaintzeari. Ase beharreko komunitate bat dago eta ahalik eta agroekologikoena den produkturik onena eskaintzea da gure ardura.



Familian hazteko leku ezin hobea.

Ludoteka, coworking gunea, gimnasioa, berdeguneak, etab.

2 logela **garajea barne**

235.000 € -tik aurrera + BEZa

3 logela **garajea barne**

300.000 € -tik aurrera + BEZa

zure hitzarmena eskatu:

sukia.com

edo deltu lezalguz:

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa